

**2022KO ABENDUAREN 13KO BATZAR NAGUSIAREN
BATZAR-EGUNKARIA (ITZULPENA)**

**DIARIO DE SESIONES DE LA SESIÓN PLENARIA DE
FECHA 13 DE DICIEMBRE DE 2022 (TRADUCCIÓN)**

AURKIBIDEA

Orrialdea

- Batzarra hasi da.....	3
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako lehenengo puntua irakurri dau: “FORU-DEKRETU ARAUEMAILEA, Kontseiluaren 2017ko maiatzaren 29ko 2017/952 (EB) Zuzentarauak ezarritako 9 bis artikuluaren transposizioa egiten duena. Zuzentaru horrek 2016/1164 (EB) Zuzentaraua aldatzen du hirugarren herrialdeekiko asimetria hibridoetara dagokienez.”	3
- Ogasun eta Finantzen foru diputatu Iruarrizaga Artaraz jaunak hartu dau berbea	3
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Martínez Fernández batzarkide andreak hartu dau berbea.....	5
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Benito Ziluaga batzarkide jaunak hartu dau berbea	6
- Euskal Sozialistak taldeko Álvarez Castrejón batzarkide jaunak hartu dau berbea	7
- EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea	8
- Euzko Abertzaleak taldeko Lerma Mentxaka batzarkide jaunak hartu dau berbea	9
- EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea	10
- Euzko Abertzaleak taldeko Lerma Mentxaka batzarkide jaunak hartu dau berbea	11
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako bigarren puntua irakurri dau: “Garraio sektoreari laguntzea eta horretarako Foru Aldundiak onura edo pizgarriren bat emotea.”	11
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Cabornero Alor batzarkide andreak hartu dau berbea	12
- Euskal Sozialistak taldeko Jerónimo Moreno batzarkide jaunak hartu dau berbea	13
- EH Bildu taldeko Méndez Urigoitia batzarkide jaunak hartu dau berbea	14
- Euzko Abertzaleak taldeko Edesa Gómez batzarkide andreak hartu dau berbea	16
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Andrade Aurrecoechea batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	18

- Elkarrekin Bizkaia taldeko Cabornero Alor batzarkide andreak hartu dau berbea	20
- Euskal Sozialistak taldeko Jerónimo Moreno batzarkide jaunak hartu dau berbea	20
- EH Bildu taldeko Méndez Urigoitia batzarkide jaunak hartu dau berbea	21
- Euzko Abertzaleak taldeko Edesa Gómez batzarkide andreak hartu dau berbea	22
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Andrade Aurrecoechea batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	23
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako hirugarren puntua irakurri dau: “Europako funtsen kontrola eta horreen jarraipena.”	24
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Martínez Fernández batzarkide andreak hartu dau berbea.....	25
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Escalante Mesón batzarkide jaunak hartu dau berbea	26
- Euskal Sozialistak taldeko Trimiño Vegas batzarkide jaunak hartu dau berbea	27
- EH Bildu taldeko Duque Santacoloma batzarkide andreak hartu dau berbea	28
- Euzko Abertzaleak taldeko Bagan Urtiaga batzarkide jaunak hartu dau berbea	29
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Martínez Fernández batzarkide andreak hartu dau berbea.....	30
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Escalante Mesón batzarkide jaunak hartu dau berbea	31
- Euskal Sozialistak taldeko Trimiño Vegas batzarkide jaunak hartu dau berbea	32
- EH Bildu taldeko Duque Santacoloma batzarkide andreak hartu dau berbea	33
- Euzko Abertzaleak taldeko Bagan Urtiaga batzarkide jaunak hartu dau berbea	33
- Batzarra amaitu da.....	34

2022ko abenduaren 13ko batzarra
goizeko 11:45ean hasi da.

Se inicia la sesión del 13 de
diciembre de 2022 a las 11:45
horas.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Así pues, damos por terminado el orden del día de la primera sesión plenaria, y, a continuación, vamos a tratar el orden del día de la segunda sesión plenaria. Y para ello, señor secretario, el primer punto.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

1.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Decreto foral norma de urgencia ([R.E.11/E/2022/0002799](#))

Autor: Diputación Foral de Bizkaia

Asunto: DECRETO FORAL NORMATIVO de transposición del artículo 9 bis, introducido por la Directiva (UE) 2017/952 del Consejo de 29 de mayo de 2017 por la que se modifica la Directiva (UE) 2016/ 1164 en lo que se refiere a las asimetrías híbridas con terceros países.

Documento **Principal:**
([R.E.11/E/2022/0002799](#)), Ver

Expediente: ([11/A/04/0003993](#))

1.- Ondorengo idatziari buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Presako foru arau-dekretua ([11/E/2022/0002799SE](#))

Egilea: Bizkaiko Foru Aldundia

Gaia: FORU-DEKRETU ARAUEMAILEA, Kontseiluaren 2017ko maiatzaren 29ko 2017/952 (EB) Zuzentarauak ezarritako 9 bis artikulua transposizioa egiten duena. Zuzentaru horrek 2016/1164 (EB) Zuzentaru aldutzen du hirugarren herrialdeekiko asimetria hibridoek dagokienez.

Dokumentu **Nagusia:**
([11/E/2022/0002799SE](#)), Ikusi

Espedientea: ([11/A/04/0003993](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señor secretario. Y para presentar el proyecto, señor Iruarrizaga Artaraz, representando a la Diputación, tiene la palabra.

El Sr. **IRUARRIZAGA ARTARAZ** jaunak: Muchas gracias, señora presidenta. Buenos días de nuevo a todos y todas.

2015ean, ELGak zerga-oinarrien higaduraren aurkako 15 ekintza-puntuei eta enpresen arteko mozkinen lekualdaketari buruzko azken txostenak argitaratu ebazan, eta horreei BEPS proposamenak esaten jake. Zerga-saihestearen aurkako paketearen esparruan – ELGaren BEPS proiektu horren ondorioak zehaztera zuzenduta dago pakete hori–, Europako Batzordeak 2016/1164 Zuzentaru onartu eban garagarriaren 12ko Kontseiluan. Bertan, barruko merkaduaren funtzionamentuan eragin zuzena daukien saiheste fiskaleko praktiken aurkako arauak ezarri ziran, eta, halan, asimetria hibridoek aurka burrukatzeko esparru bat

ezarri zan. Zuzentarau horrek berak holan definitzen dauz asimetria hibridoak: herrialde bitako ordenamentu juridikoen arteko alkarreraginaren testuinguruan sortzen diran erakundeei egindako ordaintzen kalifikazio juridikoa dagoan aldea. Halanda be, kontzeptu hori zabaldu egin eban 2017ko beste zuzentarau batek, maiatzaren 29ko 952. Zuzentarauak; horren bitartez, asimetria hibridoak modu globalagoan neutralizetan dabezan arauak ezarten dira, baita hirugarren herrialdeei eragiten deuseenak be.

Halan, testuinguru horretan, zuzentarau honek asimetria hibrido batzuk jasoten dauz, ELGaren BEPS proiektuaren azken txostenean ezarritakoan oinarrituta, eta ezabatzeko beharrezkoak diran arauak ezarten dauz, lehenengo mailako agindu bat arautuz – asimetria hibrido baxua neutralizetako urtenbide egokitzat jotzen da hori–, bai eta bigarren mailako agindu bat be, jagokoa jurisdikzioan lehenengo mailako agindu hori apliketan ez bada aplikatu beharrezkoa, dala Zuzentarauaren transposizioan desadostasuna dagoalako, dala asimetriak hirugarren estatu bat inplikatzen dauelako eta estatu horrek haren aurkako defentsa-neurririk onartuta ez daukalako.

2021eko ekitaldiko 2/2021 Foru Dekretu Arauemoilearen bidez, Bizkaiko zerga-ordenamentura ekarri ziran hirugarren herrialdeakazko asimetria hibridoak buruzko 2017/952 Zuzentarau honetan jasotako arauak, eta, horren ondorioz, soziedadeen ganeko zergaren araudian eta ez-egoiliarren errentaren ganeko zergaren araudian sartu ziran holango neurriak. Une hatan, ez zan beharrezkotzat jo zuzentarau horrek sartutako 9.bis artikuluan jasotako aginduak buruzko arau espezifikorik sartzea, gure zerga-ordenamentuan sartuta egoala ulertu zalako

Halanda be, une honetan, eta Europako Batzordetik bertatik helarazoten deuskuzena ikusita, beharrezkoak diran aldaketak sartu behar dira agindu berean ezarritakoa beteteko, 9 bis artikulua horri jagokonez, eta hori Soziedadeen ganeko Zergari buruzko Foru Araua eta Persona Fisikoen ganeko Zergari buruzko Foru Araua aldatuta egiten da. Holan, bada, uste dogu guztiz amaitu dala 2017. urteko zuzentarau horren transposizioa, 952. zenbakiko zuzentaruarena.

Aitatutako 9.bis artikulua, hirugarren herrialdeakazko asimetria hibridoak jagokonez, alderantzikatutako asimetria hibridoak kasu arautzen dau, eta estatu kideak behartzen dauz zerga-arloan gardenak diran erakundeak egoiliar lez tratatzera, baldin eta partaide nagusiak bizi diran herrialdeetako legeriak aintzat hartzen badauz, errentaren ganeko zergapetze personala behar daben erakunde lez, asimetria hibridoko egoera bat saihesteko, non errenta jakin batzuek ez daben zergarik ordaintzen inongo herrialde edo lurraldetan.

Holan, Foru Dekretu Arauemoile honen bidez, aurtengo 7/2022 zenbakia daukan Foru Dekretu Arauemoilearen bidez, zuzentarau horren 9.bis artikuluko agindu hori gehitu da, errentak eratzitzeko araubidean dagozan erakundeek ez daien lehen aitaturako asimetria hibridoa sortu, eta sozietateen ganeko zergaren zergadun bihurtuko dira horretarako ezarritako baldintzak beteten diranean; kasu horretan, euren errentak zehazteko metodoari jagokozan kontabilitate- eta erregistro-betebeharrak bete beharko ditue, baita zerga horren arabera zergak ordaintzen dituenak zehazteko be.

Horrez ganera, aldatu egiten da Sozietateen ganeko Zergari buruzko Foru Arauaren 25.bis artikulua, haren eukia egokitzeko Europako Batzordeak orain dala gitxi interpretatu dauen 2016ko Zuzentaruaren jasotako interes kengarrien mugaketari buruzko arauari, zeina luzatu egiten dan Luxenburgora bialdu barri dan erespen errazoituen argitan. Erespen horrek izaera zehatza emoten deutso zuzentarau horretan jasotako finantza-sozietateen definizioari, eta aitaturako mugea apliketatik kanpo itxi daitezke soziedade horreek.

Azkenik, Foru Dekretu Arauemoile honen Azken Xedapenetako bigarrean, Zergei buruzko Foru Arau Orokorra aldatzen dogu, Zerga Administrazioak

Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileei datuak lagateko ahalmena emonez, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioakaz, lagapen hori euren konturako langileen edo autonomoen kuoten erregularizazioa egiteko beharrezkoa dan zerga-arloko informazio guztia azken horri emoteko egiten danean. Horreek euren jarduera ekonomiko, enpresarial edo profesionaletan lortutako urteko etekinen arabera kotizauko dabe.

Zergei buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 8. artikulua bigarren paragrafoan jasotako aurreikuspenek Foru Dekretu Arauemoilearen bidea erabiltea eskatzen dabe. Kasu honetan, kamara honetan gaur eztabaidatzen gabiltzan arau-testu honetan jasotako arau-aldaketak izapidetzeko preminazko errazoiak dagoz, 2023ko urtarrilaren 1etik aplikatu behar dalako azken xedapen horretan xedatutakoa. Ondorio horretarako, Foru Dekretu Arauemoilea da eskatutakoa ezarritako epean beteko zala bermatzen eban tresna bakarra.

Muchas gracias.

La **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Iruarrizaga Artaraz. Vamos con el turno de los grupos. Para ello, tiene la palabra la representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, señora Martínez Fernández.

La Sra. **MARTÍNEZ FERNÁNDEZ** andreak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea.

Preminazko errazoiak, Iruarrizaga jauna, 2017ko zuzentarau bat dala ta. Baina, tira, egia da barriro be baliozkotze bategaz gagozala hemen, Espainiako Gobernuak ez ebazalako ondo egin etxeko beharrak, ezta Batzar Nagusi honeek be, egin eben aurreko baliozkotzean. Izan be, egin genduan transposizioak, adierazo dan moduan, kanpoan itxi zitualako inbertidutako asimetria hibridoak, 9 bis artikulua, eta horrek, tira, ustebako egoerak sortu ahal izan ditu Europar Batasuneko estatu kideen inbersino-egituretan.

Inplementazio osoa izan zan, esan dogun lez, artikulua hori kanpoan itxi zan; izan be, Espainiako Gobernuak adierazo ebanek, ez ziran sartu behar gure ordenamendu juridikoan eta zerga-ordenamenduan, errentea zergapetzen daben zergen erregularizazioan ezarritakoak aitaturako asimetria sortzea eragozten eban ta. Baina, hain zuzen be, adierazo dan lez, 2022. urteko urtarrilean Europako Batzardeak gutun bat bialdu eutsan formalki Espainiari, artikulua horren transposizioa egin eian, eta, azkenik, Batzardeak be erespen errazoitu bat emon eban joan dan garagarrilean. Hau da, ezarteko egoan epemugatik bederatzi hilebetera, eta argitaratu eta bost urtera, orain ezarritako dogu arau hori Nahiz eta, tira, errege lege-dekretu baten bidez egin da, Sánchezen Gobernuak egin ohi dituen errege lege-dekretu horreetako baten bidez, totum revolutum bategaz, hau txertatuta, baina baita beste neurri batzuk be, energia-krisiaren ondoriozkoak, esaterako.

Baina bai, hau 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioakaz zabaldu behar zan. Barriro be errege lege-dekretuaren bidetik jo da Europar Batasuneko zuzentaruaren transposizioa gauzatzeko, eta horrek beste batzuetan be ikusi doguzan arazoak ekarri daikez, konstituzionaltasun-arazoak sortu ahal izan dira aparteko eta prisazko beharrezkoak beteteko, hau da, errege lege-dekretua erabilteko eta zerga-arauen atzeraeragina debeketako. Baina, tira, hau Espainiako Gobernuaren beste bat da, beti herrenka, eta geu be hemen, azken orduan, egin beharreko baliozkotzeak egiten. Eskerrik asko.

La **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Martínez Fernández. El representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señor Benito Ziluaga, tiene usted la palabra.

El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Sí, muchas gracias, señora Presidenta, buenos días a todos y a todas.

Gaurkoan, osterara be, asimetria hibridoer gabiltza berbetan. Laburbilduz, beheranzko zerga-lehiari esker jarduten daben kapital handien zerga-igesaz gabiltza berbetan, eta hori da, gaur egun, gure gaxik handienetako bat.

The Tax Justice Network-ek, Justizia Fiskalerako Aliantza Globalak eta Zerbitzu Publikoen Sindikatuen Nazinoarteko Federazioak (PSI) egindako State of Tax Justice 2021eko azken txostenaren arabera, urtero, mundu osoan, zergen 425.000 milioi euro inguru geratzen dira ordaindu barik, enpresa handien eta fortuna handien igesa dala ta. Eta horrek, zalantza barik, aberastasuna esku gitxitan kontzentretan laguntzen dau, ekidade fiskalaren aurka.

Kopuru hori, urte bakar batekoa, nahikoa izango litzateke, barbarako, munduko herritar guztientzako COVID-19aren txertoen dosi biren erosketaren eta banaketaren kostua hiru bider bardintzeko. Ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. Eta Espainian, urtero... zifrea, Espainiaren kasuan, 6.350 milioi eurokoa da urtero, enpresa eta fortuna handiek ordaintzen ez dabezan zergen erruz. Kopuru horren % 70 multinazionaler jagoke, eta % 30 fortuna handier. Eta kopuru horreer ikusita, argi dago preminazkoa dala gax horren aurka burukatzea, eta, horretarako, arau argiak eta partekatuak behar doguz, zerga-elusino hori egitea eragozten dabenak, eta, ganera, kontrol- eta egileen kontrako zehapen-neurri gogorak behar doguz. Horixe izan zan, eta horixe da, hain zuzen be, ELGAK BEPSen aurka egindako lanen ondorioz Europako Batzordeak 2016an aurkeztu eban zerga-elusinoaren aurkako paketearen helburua; izan be, multinazionaler zerga-plangintzako estrategia horreer, desadostasun horreer edo herrialde bakotzeko zerga-sistemen arteko hutsuneak aporetzetan dabez euren irabaziak paradisu fiskalera eroateko.

Halanda be, txosten honen beste datu bat emon gura dot, gaur egun garrantzitsuagoa dana, paradisu fiskaler buruz berba egitean, edo laguntzen ez daben jurisdikzioer buruz berba egitean, palmondoak-eta daukiezan urruneko herrialdeetan pentsetan dogu ta. Baina errealdadea beste bat da, errealdadea da zergen igesaren zatirik handiena ELGeko herrialdeer eurek eragin eta errazten dabela. Zulo fiskal globalaren % 78, hau da, 332.000 milioi euro, herrialde aberatsen klub eskusibo horretako estatuer jagoke. Buruan Erresuma Batua dago, Europaren bihotzeko beste herrialde batzukaz batera, Herbehereak, Luxenburgo eta Suitza, gainerako Estaturen zerga globalen galeren % 55en erantzule dira ta.

Igaz, gai honi buruzko aurreko Foru Dekretu Arauemoilea eztabaidatu genduaner kritikau genduan lez, gaur barrero esan behar da aitatutako Europako zuzentarauak ez dirala nahikoak, eta ez dirala nahikoak garai baten ezarri ziran muger eta bazterketen ondorioz, azkenean kapital handier lasai lo egin daien. Orduan be kritikau genduan zuzentaru horreen transposizinoa kamara honetara ekarteko modua, foru-dekretu arauemoiler baten bitartez, eta, esan genduaner, zuzentaru transposizino horreer foru-arauaren figurara hobeto egokitzen dirala pentsetan jarraitzen dogu, 3/87 Foru Arauaren arabera. Eta gaur barrero kritikau behar dogu hori, justifiketan ez dan urgentsiazko izaera horreer larriagotuta, izan be, lehen esan dan moduan, 2017ko zuzentaru bat da, eta denpora sobra egon da hori lantzeko, ekarteko eta apliketako.

Halanda guzti be, aldaketa honen aldeko bota emongo dogu. Aldaketa txikia, esan daigun, baina, seguruenik, eragin handikoa, eta, era berean, Bizkaiko arauetara aurretik egin zan transposizinoa hobetzen dauelako.

Azkenik, beste gauza bat, baina ez garrantzi gitxiagokoa: pozik gagoz Gizarte Segurantzaren erakunde kudeatzaileakazko lankidetza hobetu dalako, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 308. artikuluan aitatzen diran norberaren

konturako langileen edo autonomoen kotizazioak erregularizetako. Besterik ez eta eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Benito Ziluaga. El representante del grupo Socialistas Vascos, señor Álvarez Castrejón, tiene usted la palabra.

El Sr. **ÁLVAREZ CASTREJÓN** jaunak: Mahaiburu andrea, eskerrik asko. Mahaikideak, jauna-andreak, batzarkideak.

Batzuetan haria galtzen dot, eta ez dakit zertan nabilen, perretxikoak hartzen edo Rolexak, Espaniako Gobernuaren martiaren 9ko 4/2021 Errege Dekretuaz berbetan, edo 2017/952 Zuzentarauak ezarritako 9 bis artikulua transposizioa egiten dauen Foru Arauaren Dekretuaz. Hau da, nik, edozelan be, hemendik animetan dot Pedro Sánchez, kamara honetan hainbestetan aitatzen dana, eta gogorarazoten deusatz, halanda be belarrietan txistua entzuten badau, ez daitela kezkatu, ez kezkatu, Pedro, neu naz zutaz akordetan dana.

Ederto ba, ezer gitxi gehitu ahal jako nire aurrekoek esandakoari. Foru Dekretu Arauemoile honen bidez, 2021ean, asimetria hibridoetarako buruzko 2017/952 Zuzentaruaren jasotako arauak gure lurraldeko zerga-ordenamendura ekarri ziran, eta orain sartuko dogu, eztabaidea eta bozketea egin ondoren, 9. artikulua aldatzea hori.

Egia esanda, a zelango izena. Halan izaten da automatikoki inportetan diranean ordenamendu juridiko anglosaxoiko kontuak, “hybrid mismatch” dalakoaren gauzak jazoten dira, euren esaren daben lez, erabilten daben azentu eder horregaz. Guk asimetria hibrido berbakaz itzuli dogu. Hibrido esanda, hor zehar dabilten auto horreetako bat ekarten deusku gogora, ezta? Ba, halanda be, kontuan euki dirudiena baino gehiago eragiten deuskula honek. Dirudiena baino gehiago, abusuaren aurkako zuzentaruak deitzen izan jako-ta, errazoi eta erespide onakaz. Izan be, mekanismo hibridoaren ondorioak neutralizetara bideratutako neurri-moltso bat sartu dau estatu kideen eremuan, eta mekanismo hibrido horreek, ganera, arazo handia daukie: normalean zuzenbide pribaduko erakundeetatik sortzen dira, eta zerga-saihesterako diseinutako edo ez diseinutako finantza-tresnetik harago joan daitezke, eta batzuetan horrek sortzen dau kalifikazio-desbaidetasuna. Tresna hibrido horreek beste ondare-elkarteko fenomeno batzuetatik sor daitezke, eta, ganera, oso ohikoak dira nazioarteko trafikuan, barbarako, zuzenbide anglosaxoiko figura batzuetan, edo inbersino kolektiboko funts edo erakundeetan –horreek badaukaguz, bai eta gehuagi be gure ohiko iruditerian–, edo oso ohikoak diran figuraetan: joint venture dalakoa, asko erabili dana eta jurisdikzio batzuetan persona juridiko bategaz parekatu daitekeana, eta bere bazkideentzat fiskalki gardena izan daitekeana beste batzuetan. Hori be AEBn asko erabilten dan figura bat da, check the box dalakoan. Izan be, jatorriz amerikartak diran enpresa askok Europaren egiten dabe behar, eta lar baliatan dabez holango egoerak.

Ederto, esanda dago. Hau zergadunentzat aprobeixatu daiteke, zerga-oinarrien murrizketetarako, baina tira. Edozelan be, asimetria sortzen daben hainbat buruko hidra baten aurrean gagoz, baina gorputz beretik abiauta, hau da, garrantzitsuena, oinarrikoena, mekanismo hori erabilten daben atalen artean lotura bat behar dala da. Edo, zuzentaruaren beraren berbetan, enpresek alkartuta egon behar dabe saiheste-arriskua dagoala esateko. Hori gatxa da, eta juridikoki, batzuetan, poliedrikoa-edo be bada.

Asimetria hibridoak eragin daike gastu edo galera bera lurralde bi edo gehiagotan aprobeixatea, eta hori kenkari bikotxa izango litzateke, edo, era berean, kenkari bat sor daike, inklusino barik, hau da, beste batzuetan kreditu fiskal horreek larregizkoak izatea edo ez, batean edo bestean. Tira ba, zuen pazientzia ez agortzeko, esango dot, azkenik, alderdi horri

buruz, eta lotutako eragiketen arauakaz egon daitekean nahaste baten aurrean zehaztasun gehigarri lez, adierazo behar dala hau ez dala prezioei eta transferentziei buruzko araudi bat, kalifikazio juridikoaren arazo handi bat baino, gehienetan, eta transakzionaren izaera ekonomikotik harago doala. Azken batean, asimetria hibridoaren fenomenoaren daukagu aurrez aurre, eta horren funtsa guztiz lotuta dago nazinoarteko inbersinoetako praktika eta egitura komunakaz. Ha mendean hartzeak aukerea emongo leuskigu nazinoarteko kontroloko mekanismoak hobetzeko, ha erabiltearen ondoriozko arriskuak eragozteko. Eskerrik asko zeuen pazientziagaitik. Eskerrik asko.

La **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Álvarez Castrejón. Señora Urkaregi Etxepare, portavoz del grupo Euskal Herria Bildu, tiene la palabra.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak. Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as.

Como se ha dicho, no es la primera vez que en esta cámara hablamos de asimetrías híbridas y de directivas de la Unión Europea. En concreto, en el pleno del 3 de febrero de 2021 debatimos el Decreto Foral Normativo 2/2021, a través del cual se transpusieron a la normativa fiscal de Bizkaia la mayoría de los contenidos de la Directiva 2017/952. La mayoría, pero no todos. De hecho, en la exposición de motivos de dicho decreto se decía lo siguiente:

El efecto de la doble no inclusión de una renta del artículo 9 bis no puede producirse en el ordenamiento tributario vizcaíno, ya que la regulación establecida al efecto en la Norma Foral sobre el Impuesto de Sociedades y en la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de no Residentes, impide que pueda darse dicho efecto, por lo que no resulta necesario establecer ninguna regla especial sobre el particular”. Es decir, en febrero no se transpuso el contenido del artículo 9 bis porque lo que ahí se expone no podía suceder en el ordenamiento tributario vizcaíno. Y ahora nos traen otro decreto foral normativo, para introducir el artículo 9 bis de la mencionada directiva. Y dicen ustedes, en la exposición de motivos: “Tal y como se reflejaba en la exposición de motivos del citado Decreto Foral Normativo 2/2021, en un primer momento no se creyó preciso incorporar ninguna regla específica en relación con el mandato recogido en el artículo 9 bis introducido por la Directiva 2017/952, por entenderse el mismo ya incluido en nuestro ordenamiento tributario. No obstante, en estos momentos se considera necesario introducir las modificaciones oportunas para dar cumplimiento a lo establecido en el mismo”. ¿Por qué antes no y ahora sí? No hay ninguna explicación.

¿Qué ha sucedido en estos diez meses para que se dé este cambio de opinión?

En primer lugar, hay que recordar que el contenido de esta directiva es importante, ya que, como se ha dicho, se dan pasos para evitar la elusión fiscal. La directiva se aprobó hace cinco años. Había un plazo, y ni el Estado español ni Bizkaia cumplieron ese plazo.

El plazo terminaba el 31 de diciembre de 2019, y, en octubre de 2020, la Comisión Europea dio dos meses de plazo al Gobierno de España para adaptar la directiva. Finalmente, el Gobierno de España aprobó el 30 de noviembre el anteproyecto de ley para introducir el contenido de la ley, excepto el artículo 9 bis. Posteriormente, en Bizkaia se presentó el Decreto Foral Normativo. También sin introducir el artículo 9 bis. Y ahora se ha hecho el mismo recorrido. El artículo 9 bis debía entrar en vigor el 1 de enero. El 27 de enero la Comisión Europea advirtió al Estado español de la obligatoriedad de introducir el artículo 9 bis, y el 17 de julio publicó un dictamen motivado. Por fin, el Estado español utilizó el Real Decreto

Ley 18/2022, de 18 de octubre, para introducir el artículo 9 bis. Y después, la Diputación Foral de Bizkaia ha introducido el artículo 9 bis a través del decreto foral normativo que ahora debatimos.

Por lo tanto, andamos tarde, y siguiendo al Estado español. La DFB ya sabía, al menos desde enero, cuando la Comisión Europea dio el citado aviso, que debía introducir el artículo 9 bis en el impuesto de sociedades y en el impuesto sobre la renta de las personas físicas. Estos dos impuestos son de nuestra competencia. ¿Por qué han esperado ustedes a que lo introdujera el Estado español? Han tenido ocasión, por ejemplo, de introducir estos cambios en la última norma foral de medidas fiscales. Y no lo han hecho. ¿Por qué?

Al fin y al cabo, aunque la competencia sea nuestra, van ustedes por detrás del Estado, y esa es la primera razón de nuestra abstención.

Tenemos más que decir, en cuanto al contenido, pero eso lo explicaré en mi segunda intervención. Muchas gracias.

La **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Urkaregi Etxepare. Y el representante del grupo Nacionalistas Vascos, señor Lerma Mentxaka, tiene usted...

El Sr. **LERMA MENTXAKA** jaunak: Sí, muchas gracias, señora presidenta, y buenos a todos y todas, a los junteros y junteras y a todas las personas que siguen este pleno.

A decir verdad, el diputado foral de Hacienda ya ha explicado muy bien en qué consiste este Decreto Foral Normativo, y yo diría, resumiendo, que el contenido del mismo se compone de dos artículos y cinco disposiciones, y que mediante esos dos artículos se adaptan y aprueban ciertos cambios. Por un lado, en la normativa del impuesto de sociedades, y, por otro, en un artículo concreto del impuesto sobre la renta de las personas físicas, en su artículo 11, o en el artículo 11 de la normativa. Y luego, este decreto foral normativo tiene cinco disposiciones, mediante las cuales se regulan varias cosas, o se concretan varios puntos. Por ejemplo, que mediante esto transponemos el derecho de la Unión Europea, en concreto, transponiendo a nuestra normativa una directiva concreta de la Unión Europea, la que regula las asimetrías híbridas. También se regula y concreta la colaboración con las entidades gestoras de la Seguridad Social, en lo que se refiere al sistema de cotización para las personas trabajadoras autónomas. Asimismo, se pone en vigor, y, no solo se pone en vigor, sino que se pone en vigor al día siguiente, publicándolo, también se regula cuándo tendrá efectos. Por un lado, o en un caso concreto, porque la etiqueta que entra en vigor tendrá efectos en los siguientes ejercicios fiscales, y, por otro, en otro caso concreto, que tendrá efectos también este año, como algunos y algunas han señalado y explicado muy bien, ya que tendría efectos a partir del 1 de enero de 2022.

Y, por último, se establece que todas las disposiciones necesarias para desarrollar y aplicar este decreto foral normativo pueden ser dictadas por la Diputación Foral de Bizkaia y por el diputado de Hacienda, y que una vez aprobadas por la Diputación Foral se remiten a Juntas generales, para su ratificación. Por nuestra parte, debo decir claramente que la vamos a ratificar, que vamos a estar a favor de la ratificación, porque el objetivo es, en concreto, actuar en contra de la elusión fiscal, y creo que todos los junteros y las junteras debemos mostrarnos a favor de eso, y, sin duda, así lo vamos a hacer quienes componemos el grupo Nacionalistas Vascos. Y es motivo de alegría, en mi opinión, que esta ratificación puede hacerse con amplia mayoría.

Laburtzarren, funtsean gai bi arautzen dira. Alde batetik, daborduko aitatu dot Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileei zerga-datuak lagateko eta lankidetzan jarduteko aukerea emotea, lagapen horren helburua zergak ordaintzen dabezan autonomoen kuotak benetako etekinen arabera erregularizetako beharrezkoa dan zerga-informazio guztia emotea danean, eta, bestetik, zerga-saihestearen kontrako burrukea, asimetria hibridoak eragozteko neurriak gehituz. Azken baten, helburua da multinazional jakin batzuek Europar Batasuneko estatu kideen edo hirugarren estaduen arteko zerga-arloko arau-desadostasunak aprobetxetea saihestea. Soziedadeen ganeko zergaren 25. artikulua aldatzen da, beraren eukia Europako Batzordeak interes kengarriak mugatzeari buruz egiten dauen interpretazinora egokitzeko.

Eta, beste alde batetik, azaldu da eta errepikau egin dabe, beharbada, nire aurretik berba egin dabenek, asimetria hibrido erregularraren kasuistika barri bat gehitu dala, asimetria hibrid alderantzikatua, hain zuzen be. Horren arabera, estatu kideek egoiliar lez tratau behar dabez zerga-arloan gardenak diran erakunde horreek, errentak eratzkitzeko araubidean dagozan erakundeak (edo herrialde horreetan mendeko erakundetzat hartzen diranak) edo erakunde horreetako partaideak bizi diran herrialdeetako legedian, eta, ondorioz, jazo leiteke horren errentakaitik zergak ordaintzen ez egotea.

Hor egiten dira aldaketak. Zergadunak eta zergaduntzat hartuak izan daitezcan, bai soziedadeen ganeko zergan, bai persona fisikoen errentearen ganeko zergan.

Muchas gracias.

La **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Lerma Mentxaka. En el segundo turno... No va a participar, el Grupo Socialista no va a participar. Arantza Urkaregi ha anunciado previamente que va a participar. Tiene usted la palabra, señora Urkaregi Etxepare.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak. Muchas gracias, señora Presidenta, buenos días de nuevo.

Sí, ya he mencionado eso antes, que el contenido era importante, el de la directiva, que tiene como objetivo garantizar que las multinacionales no puedan reducir artificialmente el pago del impuesto sobre sociedades aprovechando diversas asimetrías de los sistemas tributarios existentes entre los estados miembros de Europa y países distintos de fuera la Unión. Por tanto, no podemos negar que las acciones BEPS de la OCDE de 2015 y las directivas de la Unión Europea de 2016 y 2017 son pasos, pero al mismo tiempo debemos decir que se quedan cortas. Lo dijimos en el pleno de febrero y lo volvemos a decir hoy, el artículo 9 bis también se queda corto. Si leemos las medidas que aparecen en el artículo 9 bis, esas medidas no se van a aplicar a instituciones de inversión colectiva. Y estas también usan la elusión fiscal.

Por tanto, como he mencionado anteriormente, vamos tarde, y ha tenido ustedes que actuar por la vía de la urgencia para que entre en vigor a partir del 1 de enero de 2022. Se podía haber usado la vía ordinaria, tenían la oportunidad, pero no la han utilizado.

Y en segundo lugar, la medida es necesaria para actuar contra la elusión fiscal, pero no es suficiente, porque deja fuera a las instituciones de inversión colectiva.

Y por esas dos razones, nos vamos a abstener. Y no voy a pedir que se tramite como norma foral, porque el artículo 9 bis se debe aplicar a partir del 1 de enero de

2022. Es decir, debe estar aprobado antes del 31 de este mes. Por tanto, tampoco merece la pena solicitar eso. Muchas gracias.

La **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Urkaregi Etxepare. Y el representante del grupo Nacionalistas Vascos, señor Lerma Mentxaka, tiene usted la palabra.

El Sr. **LERMA MENTXAKA** jaunak: Sí, muchas gracias de nuevo.

Tira, ba, azken batean, uste dot bape zalantzarik ez dagoala, eta Batzar Nagusietako kide guztiak bat datoz, gure araudian aldaketa horreek egitea beharrezkoa dalako ideagaz, alde batetik, Europako Batzordearen interpretazino-erispideak sartzeko, eta, bestetik, zer barri horreek sartzeko, edo gure ordenamentuan jaso ez ziran asimetria hibridoek buruzko kasuistika barri horreek arautzeko, hain zuzen be. Hori dala ta, erabat justifikauta dago horretarako zein bitarteko erabili daikegun kontuan hartuta, foru-dekretu arauemoilea baino ezin da izan, hau da, nire aurretik egon diranek be azaldu dabe momentu honetan ezin dala beste modu bat erabili, aurtengo urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioakaz indarrean egon behar dauelako, eta benetan jazoten dana da Europako araudiaren eta Europako zuzentarauen transposizinoari begira, oso gai garrantzitsua dala estaduen mailan, estaduek eurek jarduten dabenetik abiauta planteetan dan arren.

Halanda ze, egia esan, uste dot foru-erakundeak benetan baldintzatuta dagozala, estatu bakotzak, edo Espainiako Estaduak, kasu honetan, transposizinoa egiten dauen epeen arabera. Urritik aurrera abiau ahal izan da, eta, jakina, Foru Aldundiak mekanismo legegilea aukeratu dau, asimetria hibrido alderantzikatuei jagokenez indarrean izatea ahalbidetzen deuskuna, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioakaz, eta 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera, indarrean egongo da, era berean, zerga arloko informazino esanguratsua egiteko eta bialtzeko aukerea, autonomoek Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzailakaz egin beharreko kotizazinoei begira.

Muchas gracias.

La **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Lerma Mentxaka. Y una vez finalizado el debate, debemos someter a votación la validación del decreto foral normativo. Podemos votar.

El resultado es el siguiente: se han emitido un total de 49 votos, 39 han sido a favor, no ha habido votos en contra, diez abstenciones. Por tanto, queda validado el decreto foral normativo.

Pasamos al segundo punto del orden del día.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

2.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Proposición no de norma ([R.E.11/E/2022/0001515](#))

Autor: Cabornero Alor, Eva María (EB)

2.- Ondorengo idatziari buruzkoak azertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Arauz besteko proposamena ([11/E/2022/0001515SE](#))

Egilea: Cabornero Alor, Eva María (EB)

Asunto: Apoyo al sector del transporte redundando en algún tipo de beneficio o incentivo por parte de la Diputación Foral.

Documento Principal:
[\(R.E.11/E/2022/0001515\)](#),[\(R.E.11/E/2022/0001773\)](#),[\(R.E.11/E/2022/0001775\)](#)

Boletines: [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (208A), [Enmiendas: Admisión a trámite](#) (208B)

Expediente: [\(11/B/26/0003665\)](#)

Gaia: Garraio sektoreari laguntzea eta horretarako Foru Aldundiak onura edo pizgarriren bat emotea

Dokumentu nagusia:
[\(11/E/2022/0001515SE\)](#),[\(11/E/2022/0001773SE\)](#),[\(11/E/2022/0001775SE\)](#)

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (208A), [Zuzenketa-eskeak: Izapidetzeko onartzea](#) (208B)

Espedientea: [\(11/B/26/0003665\)](#)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Corresponde el turno a la juntera que ha presentado la iniciativa. Por lo tanto, Señora Cabornero Alor, tiene usted la palabra.

La Sra. **CABORNERO ALOR** andreak: Gracias señora presidenta, buenos días a todos y a todas.

Tira, gaur erdibideko bat eztabaidatuko dogu, lortu dogun akordioagaz, helburu nagusi bategaz: Bizkaiko Foru Aldundiak salgaien errepide bidezko garraioaren sektorerako Bizkaiko errepideetan bidesari barriak ezarteko erabagiak ekarriko dituan ondorio kaltegarriak minimizetea. Erabagi hori momentu jasanezinean ailegau da, jipoitua baizen funtsezkoa dan sektore batentzat. Errepide bidezko salgaien garraioaren sektorea estrategikoa da Bizkaiko ekonomiarentzat eta hornidura-kateentzat, jarduera ekonomiko garrantzitsua eta funtsezkoa da, eta eragin handia dauka egoera ekonomikoan, salgaien lurreko fluxuari esker; izan be, lanpostu-tasa handia sortzen dau, eta etekin handiak ekarten ditu ,bere jardueratik eratorritako zergen bidez. Kopuru absolutuetan, eta gitxi gorabehera ulertu daigun, garraioaren sektorearen balio erantsi gordina, Euskadin, 2.787,9 milioi eurokoa da.

Bestalde, gogoratu behar da salgaiak errepidez garraiatzea aliadu handia izan zala oinarrizko beharrak blindau, ospitaleak eta supermerkaduak hornidu eta salgaiak hornidutea eta garraiatzea merezi eban gizarte batentzat, bai eta funtsezko euskal industrien funtzionamenturako be. Azken baten, errepide bidezko salgaien garraioa ndoizatearen gizartea ziurtatu eta sendotu eben mekanismoen giltzarria izan zan, pandemiaren ondoriozko zoritxarreko konfinamentuan, eta ondoren, normaltasun barria berreskuratu zanean.

Halanda be, funtsezko zeregina euki arren, garraioa da kalte gehien jasaten dabilen sektoreetako bat. Eta ingurune eta testuinguru horretan, sektorearen egoera ekonomiko prekarioaz konturatu behar dogu. Oso garai gaxak dira garraioaren sektoreko profesionalentzat; izan be, aspaldidanik eukezan arazoak: berankortasuna edo ordainketen atzerapena, garraio-zerbitzuak ustiapen-kostuen azpitik kontratetea, eredu kooperatibistaren lehia desleiala, gidariak autonomo faltso bihurtzen dauzana, kabotajearen mugea ez betetea, edo sektore horrek jasaten dauen karga fiskal handia, garraioaren baimenaren oneretxia, trakzino mekanikoko ibilgailuen ganeko zergea, aseguruak (trakzino-buruarena, plataformearena, kargearena), IAT, takografoaren barrikuspena, hidrokarburoen ganeko zerga berezia, zirkulazinoko udal-zerga.

Horri guztiari pandemiaren eragina gehitu behar jako, baita gerrak Ukrainan sortutako krisiaren ondoriozko konplikazino guztiak be, zeinak gasolioaren eta gasolinaren prezioa inoiz ikusi ez dan mailaraino igon daben, eta igoera horren ondorioak gehien jasaten dabezanak garraiolariak dira, euren lan-tresna da ta. Baina, ganera, inflazino

handiak be eragin handia dauka garraioa osotzen daben generako kostuetan: pneumatikoak; urea, diesel motorren emisino kutsatzaileak murriztea ahalbidetzen dauen likidoa; mantentidute-zerbitzua; ibilgailuen euren prezioak; aseguruaren prezioak.

Baina hori guztia gitxi balitz, Bizkaiko Foru Aldundiak ezarritako bidesari barriek beste kolpe bat dakarre garraiolarien ekonomiarentzat, zerga barri horri bidesari formatuan aurre egin beharko deusielako, eta horrek arabere sakonago egingo dau sektorearen krisia. Egoera honengaitik eragin handiena daukien Bizkaiko sektorea osotzen dutenak dira: ETEak, autonomoak... Langile-klasekoak, gehien-gehienak. Eta horreek salatzen dabilta egoreea jasanezina dala, eta, holan segidu ezker, hurrengo pausua porrota izango dala.

Horregaitik, garraioaren sektorerako bidesari barriak ezartearen kontrako jarrearen oinarritik abiauta, Elkarrekin Podemos-IUn entzute- eta ulermen-prozesu bati ekin geuntsan, bai sektoreko eragile sindikalakaz eta autonomoakaz, bai Aldundiagaz beragaz, mahai ganean urteak daroezan garraioaren sektorearen aldarrikapenak kontuan izan eitez; forfaitaren sistema, esate baterako. Hori dala ta, % 70era zabaltzea proponiduten dogu, 2023rako bermatuz, eta Aldundiari eskatzen deusagu hurrengo urteetarako modu iraunkorrean apliketea aztertu daiala.

Beste alde batetik, Aldundiari eskatzen deusagu ordainketa elektronikoa egiteko behar diran gailuak erosteko erraztasunak emon daizala, eta horrek ez daiala gastu erantsirik eragin. Eta, era berean, jardueria Lurraldean garatzen daben edo jarduera hori inguruko erkidegoetan be egiten daben garraiolariarentzat –egun berean bidesari barri horreek behin eta barriro ordaindu behar izatea ekarriko leuke horrek–, erabilera-maiztasunaren arabera hobaria ezarriko dala bermatzea, gure Lurraldeko garraiolariak deskontuak jaso ahal izan daiezan, Euro isurketen arauak beteten dituen ibilgailuek hartu ahal izango dituen deskontuez ganera. Eta koordinazino-foro bat eratzea, erakundearen informazino eta komunikazino ailegako dala bermatzeko. Lehiakortasuna arintzera eta hobetzera bideratutako proposamenak eta neurriak dira, euskal ekonomiarentzat funtsezkoa dan eta gizartearen funtzionamentu egokirako eta herritarren ondoizaterako ezinbestekoa dan sektore baten iraunkortasunerako.

Espero dogu erabagi hau aho batez onartuko dala gaur. Eta, era berean, espero dogu Aldundiak kontuan hartzea azaldutako guztia, hilebete honeetan izan dauen alkarrizketa-mahaiak aktibo segidu daian, eta garraioaren sektorearen arazoak konpontzen lagunduko daben neurri barrien garapenean inpliketan jarraitu daian, lehiakortasuna hobetzen lagunduko deusielako eta denporean zehar iraunkortasuna ziurtatuko deusielako. Muchas gracias. Nada más.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Cabornero Alor. Los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, así como el grupo Euskal Herria Bildu, han presentado enmiendas. Por tanto, en este momento tiene la palabra Jerónimo Moreno, representante del grupo Socialistas Vascos

El Sr. **JERÓNIMO MORENO** jaunak: Buenos días. Gracias, señora presidenta, egun on, batzarkideok, sare sozialetatik segiduten gaituenak, eta batzar hau eta egitea eta publikoki zabaltzea posible egiten dozuen profesionalak.

Salgaien errepedeko garraioaren sektoreari laguntzea helburu daukan arauz besteko proposamen bat aztertzen gabiltza gaur. Batzar honeetan behin baino gehiagotan jorratu dogu gaia, eta, batez be, apirilaren 5eko 2/2022 Foru Dekretu Arauemoileak, Krisi Energetikoaren ondoriozko Preminazko Neurriei buruzkoak, laguntza eta luzamendu batzuk ezarri ebazan. Laguntza eta luzamendu horien helburua gaur egungo egoera energetikoaren

ondorioak arintzea zen, eta, bertan, zerga-zorren ezohiko geroratzeak ezarten ziran kolektibo batzuentzat, jarduera ekonomikoak egiten ebezan pertsona fisikoentzat, mikroenpresentzat, enpresa txikientzat eta kooperatibentzat, etab., denbora-epe mugatuan.

Badakigu salbuespen-egoerea ez dala amaitu, eta neurri horreek hartzera eroan ginduezan faktoreen bateratzeak hondino be dirauela: Ukrainako gerrea, energiaren prezioa; inflazio handia geldituarazo da, eta euroguneko bajuena da orain, hemen, Espainian, baina handia da ondinarren.

Sozialiston ustez, egokia da neurrietako batzuk apur bat mantendutea. Eta, ondorioz, Europar Batasuneko eta Espainiako Zuzendarauakaz bat etorrira, eta Bizkaiko Foru Aldundiak daukazan eskumenen barruan, uste dogu komenigarria dala sektore horri laguntzeko zenbait neurri apliketea, lehiakorragoa eta iraunkorragoa izan daiten, eta beti be egoera hau salbuespenezkoa dalako ikuspegiagaz.

Beraz, neurri zehatz batzuk helburu daukazan erdibideko dokumentu bat adostu dogu, lehenago aitaturako Bizkaiko Lurralde Historikoko salgaien garraiorako ibilgailu astunentzako neurriei buruzko garagarriaren 20ko 7/2022 Foru Arauan be eragina daukana, eta erdibideko zuzenketea jasoten diran bost neurrietan oinarritzen dana. Honeek dira neurriak: lehenengoa, 2023ko ekitaldira zabaltzea forfaitaren % 70era bitarteko handitzea, errepideko salgaien garraioaren jardueretan mikroenpresek eta autonomoek soziedadeen ganeko zergan edo PFEZn daben zerga-oinarria murriztu ahal izateko gastuak konpentsetako, eta etorkizunerako neurria iraunkorra izatea aztertzea; bigarrena, ordainketa elektronikorako aitaturako gailua, OBU, eskuratzea erraztea; hirugarrena, Europako Euro araudia beteten daben 1. eta 2. motako ibilgailuak erabilteko hobariak ezartea; laugarrena, deskontuak edo hobariak ezartea ibilgailuaren isurien Euro kategoriaren arabera, kamara honetan defendidu dogun lez, ingurumena gehien errespetetan dauenak eta atmosferara kutsadura gitxiago isurten dauenak gitxiago ordaindu daian; eta bosgarrena, Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen jako kanonari lotutako tartetan dagozan udalakaz koordinazinoko udal-foro bat sortu daiala, erakundeek informazioa alkarri helarazotea errazteko.

Barriro aitaturako dodaz sozialistok garraioaren sektoreari laguntzeko arauz besteko proposamen honetan erdibidekoa adostera eroan gaituen erespideak: energiaren eta inflazioaren prezioaren egoerea, ahalmen handiko bideen erabilerea sustatzea, eta atmosferara egiten diran kutsatzaileen emisinoak murrizten dituen barrikuntza teknikoak indartzea. Horregaz guztiagaz, uste dogu..., eta garraioaren sektoreari laguntzeko ekarpen positiboa egin gura dogu, egoera gatxean dagoan sektorea dalako, eta hemen proponiduten diranen moduko laguntzak behar ditualako; eraginkorrak izatea espero eta gura dogu.

Azkenik, arauz besteko proposamen hau onartzea ahalbidetuko daben taldeen jarrera eta borondatea eskertzen dodaz.

Besterik ez, eta eskerrik asko.

La **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Jerónimo Moreno. Señor Méndez Urigoitia, portavoz del grupo Euskal Herria Bildu, tiene la palabra.

El Sr. **MÉNDEZ URIGOITIA** jaunak: Sí, muchas gracias, señora presidenta, buenos días a todos y a todas.

Hoy vamos a debatir una proposición no de norma presentada en julio de este año por el grupo Elkarrekin Bizkaia, sobre medidas de apoyo al sector del transporte de mercancías por carretera, tras el establecimiento de un canon por uso en varias carreteras.

Desde entonces han pasado cinco meses, y, debido a ello, algunas de las propuestas recogidas en la iniciativa original, así como en las enmiendas derivadas de las mismas, se han quedado algo obsoletas, pero ese es el tiempo de trámite de las proposiciones no de norma, para debatirlas en el pleno, y, a veces, los debates se dan destiempo.

En la proposición inicial se recogían varias medidas de apoyo al sector de transporte por carretera, y posteriormente se han recogido aportaciones de otros grupos junteros. Así, hemos conseguido llegar a un acuerdo, mediante una propuesta transaccional.

Mi grupo, EH Bildu Bizkaia, propuso estas aportaciones en septiembre:

Añadir lo que sigue al tercer punto de la proposición no de norma:

Al aplicar el descuento según uso, se deberá tomar en cuenta cuántos pasos se hacen, cuántas fases va a haber y los cinco tramos vinculados al tramo. El texto final no lo recoge exactamente así, pero esperamos que el Departamento de Infraestructuras tenga en cuenta esa aportación, a la hora de aplicar los descuentos.

Como ejemplo, cuando se pongan en marcha en las diferentes fases, el número de arcos inicial no va a llegar a 30. Por tanto, pedimos que, en esa primera fase, se aplique con flexibilidad y en su justa medida el número de pasos necesario para conseguir descuentos.

Y añadíamos también dos puntos nuevos, que decían lo siguiente:

Que la Diputación Foral de Bizkaia estudiara, junto con el Gobierno Vasco, poner en marcha un plan para renovar la flota de vehículos pesados, concediendo ayudas para sustituir los más antiguos por modelos más limpios y seguros, y, al mismo tiempo, introduciendo criterios medioambientales y sociales.

EH Bildu propuso esa medida el 21 de septiembre, y se aprobó entre la DFB y el gobierno de Gasteiz cinco días después; concretamente, el 26 de septiembre.

Nos alegramos de que esa medida se aprobara tan rápido, ya que eso, sin duda, favorece al sector.

El 27 de septiembre se abrió el Plan Renove para camiones, con un presupuesto de 7 millones de euros, y el último día para solicitar esas ayudas fue el 15 de noviembre.

Por tanto, ahora hay que valorar la idoneidad y eficacia de esas medidas. En nuestra opinión, han sido bien aceptadas por el sector, y, si es necesario, habrá que adecuar y aumentar los importes.

Y el segundo punto a incluir en el acuerdo era la creación de un foro municipal para coordinarse con los ayuntamientos situados en los tramos sujetos a canon, para facilitar y agilizar el trasvase de información y la comunicación entre instituciones.

¿Quién va a tener las primeras dudas y preguntas? Los ayuntamientos.

¿Quién va a recibir las consultas y valoraciones de los vecinos y las vecinas transportistas? Los ayuntamientos.

Por eso, creemos que los ayuntamientos pueden cumplir la “función de bisagra” entre la DFB y el sector local de transporte por carretera, ya que son las instituciones más cercanas a la ciudadanía.

En la negociación inicial de este proyecto de norma foral, mencionamos algunos puntos que en opinión de EH Bildu son importantes a nivel municipal:

- Hacerlo poco a poco, progresivamente, por fases.
- Con tarifas acordes a la coyuntura. Ofreciendo bonificaciones.
- Teniendo en cuenta la opinión de todos los agentes. El sector más los ayuntamientos.
- Y apostando por el medio ambiente y por sacar los camiones de los núcleos urbanos.

En opinión de EH Bildu, con la norma foral ya aprobada, y con las mejoras que vamos a acordar hoy, queda recogida la filosofía que EH Bildu ha defendido desde un principio, y, por lo tanto, creemos que es un buen acuerdo, que mejorará, sin duda, las condiciones del sector del transporte por carretera, como he dicho antes.

Participación, debate y transparencia. Cuando se promueven esos valores, se consiguen acuerdos positivos para la ciudadanía, y en ese camino, siempre, siempre, encontrarán a EH Bildu.

Nada más. Muchas gracias.

La **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, Sr. Méndez Urigoitia. La representante del grupo Nacionalistas Vascos, la señora Edesa Gómez, tiene usted la palabra.

La Sra. **EDESA GÓMEZ** andreak: Sí, muchas gracias, señora presidenta, buenos días a todos y a todas.

Salgaien errepideko garraioaren sektorea sektore dinamikoa da, eta balioa eta enpleoa sortzen dauz Bizkaian. Bat gatoz sektorea egoera gatxean dagoala, bata bestearen ondotik etorri jakuzan krisiak dirala ta: pandemiaren ondoriozko jarduera ekonomikoaren murrizketak eta geldialdia; Ukrainaren inbasioa; erregaien igoera itzela, etab. Egoera horrek gastu ekonomiko handia dakar funtsezkotzat jotzen dogun, eta, ganera, orain dala urte batzuetatik hona egoera gatxean dagoan sektore horrentzat. Ildo horretan, eta taldeakaz bat gatozen ezkerro laguntzeko eta egoera hori arintzeko beharra dagoala, zuzenketa bat aurkeztu geuntsan, Talde Sozialistagaz batera, Elkarrekin Bizkaiaren hasierako proposamenari, testua hobetzeko helburuagaz. Eta zuzenketa hori aitatu gura neuke, eta geure jarrera ondo adierazo, azkenean erdibideko zuzenketa baten bidez lortu dogun akordioaz ganera.

Gure zuzenketaren testuari erreparetan badeutsagu, 1. puntuan, zerga- neurriei buruzko dekretuari jagokonez, aldaketa bat proponidu genduan: “Forfaita % 70era modu iraunkorrean zabaltzea aztertzea, eta, halan bajagoko, apliketea”. Eta aztertzeo proponidu genduan, modu iraunkorrean zuzenean apliketeak sakoneko erreforma dakarrelako –

eta erreforma hori, edozelan be, egin gura dan erreforma fiskalaren balorazinoaren ostean etorriko litzateke–, eta Ukrainaren inbasinoaren ondoriozko salbuespenezko neurrien dekretu bati buruz gabiltzalako berbetan. Eta, azkenik, adostutako testuak jasoten dauen moduan, handitzea bermatzeko eta 2023ra zabaltzeko eskatzen dogu, eta 2024ra begira, aztertzeke eta, halan bajagoko, modu iraunkorrean apliketako.

Bigarren puntuari jagokonez, OBUa eskuratzea errazteko proponiduten dogu, tresna egokien bidez. Dakigun lez, free flow sistemea erabilteko, garraiolariak aukera bi daukiez: ibilgailuan OBU bat eukitea, VIA-T sistemea izango litzatekeana, edo ibilgailuaren matrikula ordaintzeko bide batez lotzea ahalbidetzen daben datuak emotea. Garraiolari askok, dagoaneko, OBU baliodun bat daukie ordainketak egungo ordainbideetan egiteko, eta, gure ustez, eskariaren arabera, dagozan formulak azertu beharko dira, zelan artikuletan dan ikusteko, eta, horrenbestez, tresna egokienaren bidez errazteko. Eta, azkenik, holan jaso da adostutako testuan.

Beste alde batetik, eta proposamena egin dauen taldearen ildoagaz bat eginda, beharrezkoa begitandu jakun sektoreari bultzadea emotea, deskontuak eginez erabilera-sarriritasunagaitik eta motorraren tipologiagaitik. Badakigu Bizkaiko Foru Aldundiak hilebeteak daroazala errepideko salgaien garraioaren sektoreagaz eta haren ordezkariakaz beharrean, eta zuzenean ezagutzen dituala sektore horrek daukazan zailtasunak. Eta, beti be bere eskumenen barruan, Bizkaiko Foru Aldundiak bere esku dauka sektorean inpliketako eta sektoreari laguntzeko aukerea, lehiakortasuna eta jasangarriritasuna hobetzeko eta mobikortasun gero eta eraginkorrago eta iraunkorragorako trantsizinoan aurrera egin ahal izateko neurriak aplikauz.

Halanda ze, errepide bidezko salgaien garraioaren sektorearen egoera gatxaren jakitun, eta bilera eta alkarrizketa horreen ondorioz, Aldundiak neurri-txorta bat planteau eban, salgaien errepide bidezko garraiorako bide-mobikortasunaren eredu barriaren barruan sartzen diran neurriak, eta Foru Arauaren testuak berak ahalbidetzen dituan neurriak, tarifen dekretuaren bitartez zehazten diranak. Neurri horreekaz bat gatoz, eta oso positibotzat joten doguz, eta, neurri baten, proposamenaren 3. eta 4. puntuetan be jasoten doguz; azken akordioan be jasoten dira. Batetik, erabilera-sarriritasunagaitiko hobaria, Europako araudia beteten daben 1. eta 2. motako ibilgailu astunentzat, eta, bestetik, deskontuak ibilgailuaren Euro kategoriaren arabera.

Eta horregaz batera, eta errepideetako gaur egungo zirkulazino-parkeko ibilgailurik zaharrenak benetan ordezten amaitzeko, hasierako zuzenketea flotea modernizetako eta barriztetako laguntza-programa bat martxan ipintea proponidu genduan, eta Euskal Herria Bildu taldeak be jaso eban gai hori, uste gendualako preminazko erronkei aurre egin behar jakela, besteak beste, flotaren modernizazinoari eta kudeaketeari. Bizkaiko Foru Aldundiak Eusko Jaurlaritzagaz batera lan egin dau, eta sektoreagazko alkarrizketa-esparru horren barruan, eta irailean, kontingentzia energetikoaren planaren barruan, Eusko Jaurlaritzak laguntza-programa bat ipini eban abian, ildo horretan.

Esan deutsuedan moduan, azkenean, lau taldeok akordio bat lortu dogu, berba egiten joan gara eta akordio hori ixteko lan egin dogu, bat gatozelako ildo horretan pausu bat emoteko eta sektoreari egoerea errazteko beharra dagoala. Halanda ze, adostutako testu bat ondu dogu. Testu horrek, lehen aitatu dodazan puntuez ganera, bidesaria daukien tartetetan kokatutako udalakaz koordinazinoarako udal-foro bat sortzea jasoten dau. Proposamen hori Euskal Herria Bilduk egin eban bere zuzenketea, eta zentzunezkoa begitانتzen jaku erakundeen arteko komunikazino hori egotea, jakinda Aldundia dagoaneko hartu-emonean dagoala udalakaz.

Uste dot akordioaren puntuak azaldu dodazala, baita horreen aurrean daukagun jarrerea be, eta, amaitzeko, eskerrak emon gura deutsadaz taldeei, akordioa egiteko euki daben jarrereagaitik. Izan be, salgaien errepideko garraioaren sektoreak denpora luzea

daroa egoera gatxean, eta, ganera, gure ekonomiarako funtsezko sektorea dan ezker, Batzar Nagusi honeen babesa merezi dau.

Muchas gracias.

La **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Edesa Gómez. Y tiene la palabra el representante del Grupo Mixto-Partido Popular, señor Andrade Aurrecoechea.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea.

Egia esanda, barregura apur bat emoten dau “Garraioaren sektoreari laguntzeko neurriak”-izena daukan proposamen bat Batzar Nagusien kamara honetara ekarteak. Hau da, esaten da politikariok munduan gagozala, edo politikan, arazoak konpontzeko, ez jenteari sortzeko, ez Bizkaiko herritarrei, eta arabere gitxiago garraiolariei. Eta Batzar Nagusi honeek egiten dabena, azken urteotan egin dabena, triskantzea eta arazoa izan da garraiolarientzat.

Luze berba egin dogu, eta gaur talde politiko guztiei entzun deutsegu hemen berba egiten –eta horretaz harro nago–, garraioaren sektoreak daukazan zailtasunen ganean, gasolinaren prezioagaz garraioak daukazan zailtasunen ganean. Eta hain txarto dabilta pasetan, hain txarto, hain txarto, hain txarto, hemen garraiolariei kanon bat ipintea onartu dala. Espainiako ganerako lekuetan bidesariak kentzen dabilta, eta Bizkaian ipini egiten doguz. Ze txarto dabiltan pasetan, gaur EAJk berak esan dau txarto pasetan dabiltzala, eta zer eta gaurkoan aplikau egingo dogu. Hau, gogoan euki danok, 2021eko urrian hasi zan, Errepideei buruzko Foru Arauagaz. Alderdi honek tinko egin eutson kontra, eta zuek, lehenengo eta behin, bide publikoetan ebiltzan guztientzat errepide libre eta alternatibo bat egon beharra kendu zenduen. Lehen, bidesaria egoanean, errepide librea be baegoan, eta zuek hori kendu zenduen. Gero, kanona ezarteko foru-araua onartu zan, eta horren aurka be egin genduan Batzar Nagusien kamara honetan. Ordua ez eutsuezan axola garraiolariek, ezta garraiolarien egoera larriak be, orain bai.

Esan dodan moduan, zuek zauri bat edegi dozue Bizkaiko garraiolari guztien kontuetan eta buruan, eta gaur ekarri tiritita bat ekarri deustazue, ekarri deuskuzue hona. Guk tiritearen alde egingo dogu, baina ez da nahikoa, inondik inora be. Eta, zuen baimenagaz, azaldu egingo deusuet zertan datzan zuen tiritita hori, badaezpadan be ez dozuen ulertzen. Izan be, urtarrilaren 1ean indarrean ipiniko da garraiolariei ezarritako kanona, Bizkaiko errepideetan. Orain arte ezer ordaintzen ez eban garraiolari batek, Barazarretik Usansolora joateko, 12 euro ordaindu beharko dauz, eta bueltetan bada, 24 euro, 1. klaseko astuna bada. Eta 2. klaseko astuna bada, 34 euro ordainduko dauz joan-etorria egiteagaitik. Barazarretik Usansolora joateagaitik.

Eta Laudiotik Basaurira doan garraiolari batek 4 euro ordainduko dauz, joan ezker, eta 8 euro joan eta etorri ezker, Laudotik Basaurira. Eta 2. mailakoa bada, 9 euro ordainduko dauz. Lehen ez eben hori ordaintzen lehen, eta orain ordaindu egingo dabe, zuoi guztioi eskerrak. Eta orain, garraioaren sektoreari laguntzeko neurriak babestu gura dozuez. Esan dodan lez, egiten jaken zaurirako tiritak dira. 24 euro, beste barik egun bateko joan-etorriagaitik.

Orduan, dinozue proposamenaren lehenengo gauza gura dozuela, forfaitaren % 70 aplikau. Zer esan gura dau forfait dalako horrek? Ze, orain % 35eko fortaita daukie, eta % 70era handitu zan Ukrainako gerrea dala ta. Zer esan gura dau horrek, jenteari

ulertu daian? Ba, garrailari batek 80.000 euro jasoten badauz, eta 30.000 euro gastau, urteko irabazia 50.000 euro izan dirala. % 70eko forfaita apliketan badeutsagu, hau da, % 35, gainerakoek justifiketako gatzak diran gastu deitzen deutsagunak, % 70 kentzen deutsagu, 35.000 euro kentzen deutsaguz. Halanda ze, 50.000 euroko etekin horretatik 35.000 euro kentzen deutsaguz, 15.000 euro geratzen jakoz, eta 15.000 horreen arabera bakarrik ordainduko dauz zergak. Ederto, primeran.

Baina, zergaitik besteek ez? Goizean esan dodan moduan, zergaitik okinek ez? Zergaitik beste garrailari batzuk ez? Zergaitik garrailariak bakarrik? Zergaitik jaun-andre honeek 15.000 euro bakarrik ordainduko dabez, 50.000ko etekina eukita? Zabaldu daigun besteentzat be. Horrek, Ukrainako gerragaz, gasolioaren igoeragaz, zentzuna eukan, baina Ukrainako gerraren ezaugarriak desagertzen diranean, gasolioaren prezioa, hemen aitutzen dana, zer jazoko da, kenduko deusie? Hau gozoki bat da garrailarien ahoan, errepideetara urten ez daien, kexau ez daitezkan, eta denporaldi batean nasai egon gaitezkan. Baina desegin egingo da garrailarien ahoetan, eta urtebete barru, kentzen deutseenean, 32 euro horreek, 24 euro horreek, eta arestian aitatu dan diru hori ordaindu beharko dabe.

Halanda ze, ondo begitantzen jat, ondo etorri, beste urtebete. Bueno, garrailariak pozik dagoz. Baina Kantabriako garrailariak etorten diranean, edo Asturiaskoak, eta esaten dabenean, zergaitik ordaindu behar dot nik % 35, hau da, gainerakoek ordaintzen dabena eta hemen forfaitaren aurretik ordaintzen zana, eta bizkaitarrek % 70 ordaintzetik salbuetsita daukienean, justifiketan gatzak diran gastu lez, hara!, ba beharbada legez kanpokotzat joko da, Bizkaiko garraiorako laguntzak diralako. Legez kanpokotzat jotzen badira zer, laguntzak kenduko deutsaguz? Eta Kantabriak eta Asturiasek % 90eko forfaita ezarten badabe, eta gasturik ordaintzen ez badabe ez dabelako gura, zer jazoko da? Orduan esango dogu eurak dumping fiskala egiten dabiltzala. Hori oso gustuko dogu-ta, Urkullu jaunak behintzat bai. Ba, tira, esan dodan moduan, guk babesten doguzan arazoak, ze, kanonaren kontra gagozanez, kanona ez ordaintzea dakarren edozer primeran irudituko jaku.

Horrez ganera, OBUa, VIA-T, ordaintzea errazteaz berba egin dozue. Oso ondo deritxat. 25 euro balio badau, ez dot uste horregaitik garrailari batek porrot egingo dauenik, danek daukie-ta, EAJko bozeroaleak aitatu dauen lez. Bestetik, sarritan erabilteagaitik hobaria ezartea, daborduko onartuta dago-ta urtarrilaren 1ean indarrean ipiniko dan araua. Baina hara, zer eta erabilera-sarritasunagaitik, hau da, errepidea gehien erabilten dauenari deskontu handiagoa egingo jako, baina ez gabiltza kutsaduraren ganean berbetan, kutsatzen dauenak ordaindu behar dauela esanez? Baina zuek alderantziz zabiltze berbetan: gehien erabiliko dauenari, gehien kutsatuko dauenari, mesede egingo deusazue.

Bestetik, Euro kakegoriarentzako hobarien ganean berba egin dozue, ederto, hori be onartuta dago. Hemen, onetsita dagoan eta urtarrilaren 9an indarrean jarriko dan gauza bat ipini daizuela, oso ondo deritxat, jarrea. Danek sinatzen dabe, neuk be babesten dot, gauza on bakarra da, kamioi ekologikoagoa eukitea, gitxiago ordaintzea, hori oso ondo dago, eta Aldundiak garrailariei lagundu beharko eutsen aldatzen jarraitzen, Eusko Jaurlaritzak egiten dau, baina guk hori gehiago bultzatu behar dogu.

Eta azkena, denpora gehiagorik ez daukat-eta, udalakaz koordinetako udal-foro bat egitea da. Jakina, garrailariak autobidetik urtengo dabe, ordaindu behar dabelako, eta herrietako errepideetan sartuko dira, Lezamatik, esaterako. Orduan, Lezama kexau egiten da, kamioiak handik pasauko diralako, eta udal-koordinazinoko foro bat antolatzen deutsegu. Horixe egingo dogu, trafiko astuna jasango daben udalak lasai egon daitezkan. Tira, zuei ondo iruditzen bajatsue, neuri be bai. Esan deusuet guk tiritara horreen alde egingo dogula, absurduak begitantzen jakuz, barregarriak, egin behar dozuena kanona kendu eta urtarrilaren 1ean martxan ez ipintea da. Mila esker.

La **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Andrade Aurrecochea. Y pasamos al turno de réplicas. La representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señora Cabornero Alor, tiene usted la palabra.

La Sra. **CABORNERO ALOR** andreak: Muchas gracias, señora presidenta, buenos días de nuevo.

Tira, lehenengo eta behin, eskerrak emon gura dot ekimen honek jasoko dauen babesagaitik eta prozesu honetan inplikautako alde guztiek alkarrizketaren alde agertu deuskuen jarrereagaitik. Bigarrenik, Andrade jauna, kamioi bat gidatzea dagoen lanbiderik gogorrenetako bat da, horretan ez dago zalantzarik. Soldata eskasak, eta bizimodu ziurtasun bakoa eta arriskuz bete. Garraiolariak ez dabe merezi euren beharrizan eta aldarrikapenei, gaur eta hemen, atril honetan, kasketaldi bategaz erantzutea. Ez dot ondo ulertzen gaur hemen daukazu jarrera. Zu asko kezkatzen zara garraiolariak. Halan be, urtero, aurrekontuetan, Aparkabisa zerbitzu funtsezkoa eta beharrezkoa ezabatzeko proposiduten duozu. Zuek kendu egingo zendueke? Momentu horretan ez dozue garraiolariengan pentsetan, ez. Ez dot ondo ulertzen, nahiz eta zuen argudioetako askogaz bat gatozen, eta azaldu dozun diagnostikoagaz. Baina gauza batzuk apur bat inkoherenteak begitantzen jakuz.

Garraiolariak Bizkaiko ordezkari politikoei eskatzen deutsee garraioaren alde egin daiela, eta formula eta akordio barriak bilatu daiezala neurri barriak martxan ipinteko. Eta jakin badakigu gaur hemen onartuko diran neurriak, berez, ez dirala nahikoak sektorearen zailtasun- eta prekaridade-egoerari aurre egiteko. Egiturazko neurriak behar dira, neurri ausartak, sektore honen errebindikazio historikoei helduko deutseenak. Jakina, Elkarrekin Podemos-IUn ez dogu etsiko ildo horretan lanean segiduteko, eta aldean arteko adostasunak bilatzeko ahaleginean, sektorearen iraunkortasunari eutsi eta bermatu ahal izateko neurri barriak martxan ipini ahal izateko.

Muchas gracias. Nada más.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Cabornero Alor. El representante del grupo Socialistas Vascos, señor Jerónimo, tiene usted la palabra.

El Sr. **JERÓNIMO MORENO** jaunak: Buenos días de nuevo.

Egia esanda, barbarik ez egiteko asmoa euki dot, gehiengoaren kontsentsua egoalakoan. Baina tira, personaren batek, talderen batek, lar nabarmendu gura izaten dau beti. Protagonismorik ez daukanean –bere ordezkartzaren arabera protagonismorik ez dauka ta–, ba, tira, apur bat nabarmendu eta esaten dau: “Oposizino itzela, oposizino itzela euki dogu”, ez dakigu oso ondo zein dan oposizino itzela, 51tik 2 eukita, beharbada itzela da, baina edozelan be hutsala izango da, kuantifikatu daitekean ikuspegitik.

Nire ustez, hartu diran neurriak dira garrantzitsuak. Gainera, uste dot hartu diran neurriak, ia aho bateko adostasunagaz onartuko diranak, askoz be garrantzitsuagoak dirala. Egia da talde bakotzak zeozelan aldaketaren bat defendidu dauela, errepideko merkantzien garraioagaz egiten danari jagokonez. Eta berba egin dauen baten bati be esango neuskio, batez be babesa emongo dauela baina kontra dagoala esaten dauenari, hau da, babesa emongo dauela esaten dau, baina kontra egiten dau, ea Europar Batasuna zer dan dakien, Europar Batasunaren jarraibideak zer diran dakien, eta, kontu horretan, ez doala norbera hara “ba hau bai, hau ez, hori ikusiko dogu” esatera. Azken baten, hori ez da posible, esaten dozun lez erabilteagaitik ordaindu behar dalako. Baina, ganera, gizarte moderno baten egoteko eta gizarte aurreratu baten

egoteko jarraibideak, non sistema ekologikoak defendiduten diran, eta gure seme-alabei, lobei, gero eta gizarte bizigarriagoa itxi deiegun sustatzeak, horixe dakar. Beraz, uste dot badagozala esan daitekezan baina esan behar ez diran gauzak.

Azkenik, aitatu gura dot badagoala inoiz ezegaz ados ez dagoan baten bat, batez be zergak ordaindu behar badira. Ez daitela zergarik ordaindu, ez daijala inork ordaindu, ez harek, ez beste harek, ez daitela egon zergak ordaintzen dabezan kristaurik. Baina, hori bai, lekua egon daitela, emoteko baliabideak egon daitezela. Gaztelaniazko atsotitzean, “ai, ai!” esaten ebanari “pues guarda para cuando no hay” erantzuten eutson beste batek. Besterik ez.

La **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Jerónimo Moreno. Señor Méndez Urigoitia, portavoz del grupo Euskal Herria Bildu, tiene la palabra.

El Sr. **MÉNDEZ URIGOITIA** jaunak: Sí, muchas gracias de nuevo, señora presidenta.

Hara, gehiengoz lortutako akordio zabala daukagula dirudi. Andrade jauna, esango neuskizu, baita be, tirta-kutxea erosten, edegiten eta ipinten dozun bitartean, generakoak uste dot sektoreagaz diagnostikoak egiten zentrau garala, eta haren proposamenak jasoten eta konponbideak emoten ahalegindu garela.

Eta, era berean, uste dot ezin dogula alde batera itxi ibilgailu astunen kanonak, zuk esan dozun moduan foru arau baten bidez ezarri zanak, teorian lagundu behar ebal, eta nik uste dot horixe egingo dauela, hainbat helburu lortzen, ikuspegi sozioekonomikotik, alde batetik, eta ingurumenetik, bestetik. Gitxiago kutsatzen daben ibilgailuak erabiltea sustau beharko leuke, eta hori gustetan jatsu; salgaiak trenbideko garraiora eroaten lagundu beharko leuke, hori lortzea espero dogu; azpiegiturak manteniduteko gastu publikoa murriztea, begien bistakoa dala emoten dau; eta errepideen arteko trafikoak hobeto antolatzea, eta, era horretan, gaur egun eskualde batzuk daukiezan arazoak desagerrarazotea. Izan be, herri batzuentzako arazotzat hartzen dozuna, guk konponbidetzat hartzen dogu, eta uste dogu ibilgailu astun horreek benetan uriguneak zehartzea eragotziko dauela. Horreek izan beharko leukie, teorian, foru arau horren helburu nagusiak, baina egia da horrek ez gaituela itsutu behar, eta onartu egin behar dogula, edo ulertu, errepideko garraioaren sektoreari kalte egiten deusola, ez badeusagu laguntzen, gaur egiten gagozan moduan, kanon horrek izan daikean eragina minimizauko daben laguntza-neurri batzuekaz.

Horregaitik uste dogu garrantzitsua dala, eta ez guri bururatu jakulako, sektoreko alkarteek holan adierazo deuskuelako baino: konpentsazino-neurri osogarriak martxan ipini daitezala, eta horretan gabiltza gaur. Eta esan dot, ez EH Bilduren edo generako talde politikoen ideak diralako, baizik eta garraiolarien alkarteek holan transmitidurtn izan deuskuelako urteetan hemen ordezkaturta gagozan talde guztiei, eta Foru Gobernuari be bai.

Aurreko berbaldian esan dot, euskeraz, eztabaida honen hasieratik, Foru Arauaren negoziazioaren atarikoetatik, udabarrian, EH Bilduk hainbat neurri planteau ditu inplikautako eragileek parte-hartze aktiboa izan daien ahalbidetzeko, eta, horregaitik, EH Bildutik, azken hilebete honeetan guztietan, egin diran batzorde eta osoko bilkuretan, proposamen-txorta bat proponidu dogu, gure ustez gaur onartuko diranak, eta ez daukat argi gehiengo zabalagaz edo aho batez, ez dodalako ikusi euren tiritak noraino estaliko daben. Seguruenik, bigarren berbaldian jakingo dogu.

Eta barriro esango dot, daborduko esan dan arren, udal koordinazinarako foro bat sortzea, gaur onartuko doguna; sektoreko alkarteakaz lankidetzan jardutea, horretarako

bilera ugari egin dira, eta badakigu lan-mahai bat sortu dala; erabileragaitiko dirulaguntzen programa bat eskatu genduan, eta gaur adostuko da erabilera-sarritasunaren arabera hobaria ezartea Europako araudia beteten daben 1. eta 2. motako ibilgailu astunentzat; fiskalitatea aldatzeko eskatu genduan, hori be gustetan jako, eta hemen sartzen da gaur adostuko dogun puntua be, % 70eko forfaitarena, beherapen hori, eta 2024. urterako modu iraunkorrean aplikau ahal izatea aztertzea, egokitzen jotzen bada; Renove plana, gitxiago kutsatzen daben ibilgailuak erosteko; eta gitxiago kutsatzen daben ibilgailuentzako tarifea murrizteko neurriak, zeinak, gaur onartu arren, zintzoa izan naz eta argi esan dot, hau da, neurri horreek onartuta eta iragarrita dagoz dagoaneko, irailaren 26tik bata, eta zementiaren 7tik bestea, hurrenez hurren. Eta ez jaku ahaztu be, beharbada garrantzi gitxiago daukan arren, titulazino-tasen izoztea, aurretik be onartu genduan, EH Bilduren proposamen bati esker, areto honetan bertan.

Gure ikuspuntutik, akordio ona da hau, baina, halanda be, nik sektoreko erakundeek helarazo euskuen esaldi bat erabiliko dot, uste dodalako nahiko ondo laburtzen dauela gaur adostutakoa: “Hau lagungarria da, baina ez da panazea”. Eta egia da, uste dogu bide horretatik jarraitu behar dogula, ezin garela gaur gelditu, aurrera jarraitu behar dogula holango laguntzak eta konponbideak bilatzen. Foru Arauaren eztabaidan esan genduan, nire lehenengo agerraldian adierazo dot, eta orain barriro dinot, jakin badakigu, akordiorako eta negoziiazinorako borondatea egon ezker, gardentasuna eta parte-hartzea egon ezker, gai izango garala sistema bat ezarteko, trafikoa arautuko dauena, zirkulazinoa hobetuko dauena, seguruagoa izango dana, kamioiak uriguneetatik aterako dituna, CO2 isuriak murriztuko dituna eta garraioaren sektorea bizibarrituko dauena. Hori da nire ustez euki behar dogun ikuspegi global guztia.

Y creo que vamos en la buena dirección, pero esto no es más que el primer paso. Porque debemos continuar por esta senda, porque creemos, además, que en adelante habrá que buscar nuevas medidas y propuestas para revitalizar el sector del transporte de mercancías por carretera. Hoy no vamos a cerrar ningún ciclo, al menos esa es nuestra intención, y no vamos a dar carpetazo a ningún proyecto, hoy damos inicio a un nuevo camino, y esperamos lograr, en breve, nuevos acuerdos, acuerdos valientes, ya que esa es la intención de EH Bildu al menos. Nada más. Muchas gracias.

La **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, Sr. Méndez Urigoitia. La representante del grupo Nacionalistas Vascos, la señora Edesa Gómez, tiene usted la palabra.

La Sra. **EDESA GÓMEZ** andreak: Sí, gracias, señora presidenta.

Andrade jauna, pozten naz aldeko botoa emongo dozula-ta, zeure diskursoa gorabehera. Gaur egun, Andrade jauna, salgaien garraiorako bide-mobikortasunaren eredu barri batean gagoz, Europako araudiagaz bat datorren eredu barri batean, hau da, erabilten dauenak ordaindu egiten dauela eta kutsatzen dauenak ordaindu egiten dauela. Eta gure garraiolari bizkaitarrek be Europara urten behar dabe eta holango neurriak behar ditue lehiakorrek izateko.

Eta gaur laguntza horreei buruz berbetan gabiltza, sektoreari bultzadea emoteko, luzaroan krisi-egoera jasaten egon da ta. Alde batetik, lortu dogun akordioari balioa emon gura deusat, akordio hori sektorearentzat oso garrantzitsua dala uste dot, eta, era berean, talde guztiek adostasuna lortzeko euki daben jarrera eskertu gura dot. Eta, beste alde batetik, azpimarratu gura neuke, eta balioa emon, salgaien errepideko garraioaren sektoreari laguntzeko neurriak une oro sektoreagaz batera egindako hausnarketatik planteau dirala. Saila behin baino gehiagotan egon da sektoreagaz alkarrizketa edegiko giroan jesarrita, eta entzute ariketa horretatik sortu dira laguntza horreek, sektoreari bultzadea emoteko. Sektore hori, esan dodan

moduan, funtsezkoa da gure lurraldeko ekonomiarako, eta aspalditik dago egoera gatxean, eta, beraz, uste dot horrelango akordioak onak dirala.

Muchas gracias.

La **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Edesa Gómez. Y para terminar el debate, tiene la palabra el representante del Grupo Mixto-Partido Popular, señor Andrade Aurrecoechea.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea.

Nik ez dakit ondo edo txarto ulertu jatan, nik uste dot argi eta garbi esan dodala tiritan horren alde egingo dodala, izan be, bueno, irakurri dot nire ustez danak indarrean dagozala daborduko, urtarrilaren 1ean ipiniko diralako indarrean. Tiritan horren alde egingo dot, zelan ez dot ba egingo, zergaitik? Baina Alderdi Popularrak esaten dauena da kanona ez apliketeko, ez tiritak, kanona ez apliketeko, horixe defendiduten gabiltza 2021etik, zuek kanonagaz hasi zinienetik. Izan be, gogoratu behar da kanona Aldundi honek berak sortutako arazo bat konpontzeko sortu zala; Supersur sortu eban, eta kanon bat ipini eutsen, eta garraiolari batek be ez dau Supersur erabilten, eta danak Txorierritik joan ziran, eta Errontegi zehartu eban, eta Barazarretik joan ziran, Barazarren pilaketak sortu ebezen, A-8tik zirkuletea debekau eban. Orduan, Supersurreko kanona kendu edo asko jatsi beharrean, orain % 10 jatsiko dozue urtarrietik aurrera, eta generako errepideetan kanona ipintea erabagi dozue. Hoba da 60 milioi gastatea arku barruak ipinteko, errepide osoa kontrolakaz betetea, askoz hoba da. Baina bueno, hori da zuen erispidea, ez da Europako eredu barriaren erispidea, ez, Europako eredu barria Bizkaian eta Gipuzkoan bakarrik apliketan dala emoten dau, Espainiako beste lekuetan ez dabilta-ta arkuak ipinten, eta, nik dakidala, ez dira ipiniko epe laburrean. Hau da, zuen eredia da, EAJrena eta Alderdi Sozialistarena, ez Europarena, zuena.

Sektoreagaz batzartu zariela dinozue, sektorea bere buruagaz batzartu da, esan deusue ez dauela ezelango kanonik gura, ez deusue laguntzeko esan. Hau da, sektoreak esan deusue: “Ez ipini neuri kanonik”. “Ipinen badestazu, ba bai, emoten deustazuzan laguntza danak primeran etorko jataz”, baina sektoreak dinoana da “ez ipini neuri kanonik”. Orain laguntzak ipiniko doguz.

Alderdi Sozialistak dino PPK beti esaten dauela ez daitela zergarik ordaindu, ez daitela zergarik ordaindu. Hara, gu beti egongo gara zergak beheratzearen alde. Eta zer da %70eko hobariko forfait bat? Azaldu deusuet lehen, Bizkaiko garraiolari batek be ez dauela zergarik ordainduko irabazien % 70en ganean, hori zergak jatea da, hori da Alderdi Popularrak beti defendiduten dauena. Eta zuek defendiduten badozue ez daitela % 70 ordaindu, ni pozik, eta % 100 ez ordaintzeko badinozue, be bai. Baina zuk dinostazu “PPK beti eskatzen dau”, ba hori da zuek onartzen zabilteana, beti kexetan zarie zergak jasteaz, garraio publikoa doakoa egitea dan moduan, zergak jatea, jenteak ez dau ordaintzen, gu pozik. Eta, horrenbestez, proposamenaren alde egingo dogu.

Baina gura dot argi geratu daitela hau tiritea dala. Akatsa da zuek kanon bat ezarriko dozuela 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera, eta lehen garraiolari batek ezer ordaintzen ez eban lekuan, orain, lehen esan deusuedan moduan, 24 euro Barazarretik Usansolora joateagaitik, eta 34 euro 2. mailako astuna bada. Lehen ez eban ezer ordaintzen, eta % 70eko forfait hori amaitzen danean, datorren urtean hori jazoko da-ta, bertan behera itxiko da, garraiolariak lehen ordaintzen ez ebezen 34 euro gehiago ordaindu beharko dabez, eta hori herritarrari ailegaurazoko deusie, euren kostuetan, ahal badabe. Autonomoak diren ezker, ezin izango dabe, euren gain hartu beharko dabe. 25 euro aurreztuko deusaguzala VIA-Tn? Ederto.

Kamioiak erosten lagunduko deutsegula? Onartuta dago-ta, izan be, onartuta badago, oso ondo iruditzen jat, baina onartuta dago daborduko, garraiorako dirulaguntza emonda dago. Erabilera-sarritasunerako dirulaguntza emoten dozue, Euro kategoriarako diruz laguntzen da, dana onartuta dago, niri oso ondo begitantzen jat, baina nik ikusarazo gura deusuet hori izenburua dala: garraioaren sektoreari laguntzeko neurria. Hemen, garraioari laguntzeko neurri bakarra da zuek 2023ko urtarrilaren 1ean, datorren hilean, ipini gura dozuen kanona kentzea, eta zuek, dirudienez, ez dozue inolako zentzunik.

Zuek, beti esaten izan dodan lez, tarte biri aolikau deusazue lehenengo. Baina beste hiru dagoz, eta ipinten segiduko dogu, Txorierri zehartzeagaitik, Arrontegi zehartzeagaitik, Kantabriara joateagaitik. Eta lehenengo kamioiak dira, baina gero autoak izango dira, ibilgailuak izano dira, Errepideen Foru Arau barriagaz eta zuek daukazuen kanon proiektuagaz, hori izango da zuen etorkizuna. Ez badogu hori geldiarazoten, tiritu asko ipinita be, honek ez dau konponbiderik eukiko. Mila esker.

La **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Andrade Aurrecochea.

Y finalizado el debate, someteremos a votación la transaccional que han acordado entre los grupos. Podemos votar.

El resultado es el siguiente: Se han emitido un total de 49 votos, 49 han sido a favor. Por lo tanto, se aprueba la transaccional por unanimidad.

A continuación, el tercer punto del orden del día.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

3.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Proposición no de norma [\(R.E.11/E/2022/0001815\)](#)

Autor: Andrade Aurrecochea, Eduardo (GM/TB-PPB)

Asunto: El control y seguimiento de la ejecución de los fondos europeos.

Documento **Principal:** [\(R.E.11/E/2022/0001815\)](#)

Boletines: [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (212A), [Enmiendas: No presentadas](#) (212B)

Expediente: [\(11/B/26/0003776\)](#)

3.- Ondorengo idatziari buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Arauz besteko proposamena [\(11/E/2022/0001815SE\)](#)

Egilea: Andrade Aurrecochea, Eduardo (GM/TB-PPB)

Gaia: Europako funtsen kontrola eta horreen jarraipena

Dokumentu nagusia: [\(11/E/2022/0001815SE\)](#)

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (212A), [Zuzenketa-eskeak: Ez dagoz](#) (212B)

Espedientea: [\(11/B/26/0003776\)](#)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Corresponde el turno al grupo que ha presentado la iniciativa. Por lo tanto, señora Martínez Fernández, tiene usted la palabra.

La Sra. **MARTÍNEZ FERNÁNDEZ** andreak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea.

Proposamen honen bidez, barriro dinogu Batzarretako talde guztiek parte hartu behar dabela Europako funtsen kontrolean, betearazpenean eta jarraipenean. Izan be, Gobernua eusten daben taldeak ad hoc foru dekretu batean babestu dira, ad hoc batzorde batean, eta bertan talde guztiok gai honetan parte hartzea galazoten da. Hau da, pluraltasunari betoa ipini jako, bai horixe.

Benetan kostetan da eretxi ona eukitea Gobernuko alderdiek Talde Popularretik gaur barriro planteetan dogun asmoari uko egiteko aurkeztu dituen argudioei buruz. Beste administrazio batzuek, jakina, ez dabe ezelango eragozpenik ipini, eta, ganera, talde politiko guztien parte-hartzea sustatu dabe. Benbarako, Galiziako, Gaztela eta Leongo edo Extremadurako autonomia-erkidegoak, adibide batzuk aitatzearren. Eta hemen gobernu-eginkizunak daukiezan taldeek oposizino moduan eskatu dabe, eta ezelango arazorik barik egin da, gardentasunaren mesedetan, eta talde guztien artean zuzenean ezagutu ahal izateko aurkeztutako proiektuak eta onartuko diranen jarraipena.

Baina Euskadik, baita Bizkaiak be, baita gure Lurraldeak be, badirudi horretan desbardinak izan behar dogula, eta ez dauka ezelako justifikaziorik Gobernuak arlo horretan atea sarrailagaz itxi izanak. Extremaduran, esate baterako, azpibatzerde bat sortu da Europako Gaietarako eta Kanpo Harremanetarako Batzordearen barruan, funts horreek aztertu, jarraitu eta kontrolatuko. Balear Uharteetan eta Aragoi, adibidez, talde parlamentario guztiak sartzeko organuak eta batzordeak sortu dira. Hori guztia ekonomia suspertzeko estrategien diseinuan berba egin ahal izateko eta proiektu horreek Next Generation funtsetara aurkeztu ahal izateko. Galizian, lantaldea, bertako Parlamentuan dagozan alderdi politikoakaz be. Gaztela eta Leonen be partaidetzarako tresnak ipini dira, eta, jakina, horreetan sektore publikoa dago, sektore pribaduari be lekua egin jako, noski, eta, ganera, alderdi politikoei proponidu jake lantalde bat sortzea, jarraipenerako eta funts horien kudeaketarako.

Egia esan, gai hori modu gardenean eta partaidetzagaz jorratzeari egin deusazue, eta ez dot esango harritu gaituenik, zuokaz inozotasuna ez dalako posible, baina oker handia begitantzen jakula esango dot, eta barriro be gaur zuzendu ahal izateko deia egiten deusuegu. Ez dot barriro esango, erakunde publiko guztietan berba asko egin dalako funts horreek Espainiako ekonomiarako, orokorrean, eta Bizkaikorako, batez be, daukien garrantziari buruz. Halanda be, hainbestetan aditzen dogun baterako gobernantzaren kontu hori paperean lotzen da, paperean edozer ipini ahal da-ta, danok dakigunez.

Hemen 105/2021 Foru Dekretua aitatzen dozue, eta hor amaitzen da kontua. Eta, egia esan, herritarrek horri buruz ezagutuz goazen albisteek ez gaitue baikor sentiduarazoten. Hor daukaguz azken albisteak, Europako Parlamentuaren Kontrol Batzorde baten bisitea iragarten, ondo entzun dozue, Parlamentuarena, ez Batzordearena, gure herrialdeko funtsen betearazpena kontrolatuko. Betearazpen eskasa, jakin diran azken datuen arabera, Espainiako Bankuak eta beste erakunde batzuk ohartarazi eben lez, gure herriko gastu-ahalmena kolokan dagoala dinoe ta. Izan be, badakigu urriaren 31n aurtengo lehenengo hamar hilebeteetan egindako ordainketak kreditu globalen % 23ra baino ez dirala ailegetan, baina horrek ez dau esan gura, ondo dakizuenez, funts horreek gaur egun, lehenengo hamar hilebete honeetan, ekonomia errealeraren errealitateak. Ikusten dozuenez, Europako Parlamentuak be badaukaz gai honetarako batzorde espezifikokoak. Orain arte, Batzar Nagusiok, Bizkaiko parlamentuak, Euzko Alderdi Jeltzalearentzat eta Alderdi Sozialistarentzat, ezin dabe parte hartu eta kontrolau guk gardena, eraginkorra eta zorrotza izatea espero dogun kudeaketa bat, funts horreekaz egin behar dana, hain zuzen be.

Espero dogu gogoetea egingo dozuela eta gaur atea edegiko dozuela proponiduten dogun organua sortzeko. Izan be, gure proposamenak jasoten dauen moduan,

hasieratik bertatik, Europako legegileek espero eben Europa osoan martxan ipini diran suspertze-planak partaidetza-sistema baten bidez idaztea. Hemen hondino ulertzen gatxa da hori, dirudienez.

Horregaitik, Europako funtsen betearazpena kontroletako eta jarraipena egiteko organu bat sortzeko eskatzen dogu. Organu hori, proponiduten dogunaren arabera, Foru Aldundiaren eta Batzar Nagusien artean modu paritarioan izentautako kideek osotuko dabe, eta talde guztien ordezkari-tza bermatuko da. Mila esker.

La **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Martínez Fernández. El representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señor Escalante Mesón, tiene usted la palabra.

El Sr. **ESCALANTE MESÓN** jaunak: Hola, buenos días a todos y a todas.

Barria ez dan gai bat eztabaidatzen gabiltza, eta, hain zuzen be, ekimen honek hiruhileko bat daroa itzaroten. Baina ulertzen doguna da ekimena barriro eztabaidatzearen errazoa dala sakoneko arazoak bere horretan dirauela, hori lehertuarazoten dauen ikuspegia hondino hor dagoala.

Geuk be zalantzan ipini doguz Next Generation funts europarrak eta proposamenak egin doguz hareei buruz, eta, esaterako, Xabier lankideak proponidu eban, berbarako, Foru Gobernuak aldian-aldian modu proaktiboan informazinoa emotea Batzar Nagusi honeei, Europako funtsei jagokezan aurrerapen eta barritasunakaz, eta haren agenda instituzionala publiko eginez, baina arrakasta gitxi euki dau, beste une batzuetan Aldundi honek erakusten dauen borondate on hori gauzatzean.

Horretan oinarrituta, uste dot gure aldetik ez dala barritasun handirik egongo, ekimen honi buruzko botazinoan be ez. Eta, martiko botazinoan oinarrituta, logikoena izango litzateke aldeko 7 boto, kontrako 32 eta 10 abstentzino egotea. Esan dodan moduan, Foru Gobernuaren aldetik be ez dago barritasunik, partaidetza haren arrabolak esaten dauena da, eta Bizkairako aurrekontuei begira daukan jarrereagaz ikusi barri dogu. Eta, proposamena egin dauen taldeagaz izan daikegun desadostasunaz harago –Estaduko koalizino-gobernuak Europako funtsak kudeatzeko erari buruz edo zalantzazko erresilientziako bere interesetarako funtsen zati handi baten kudeaketa pribaduari buruz, errepide jasangarriak, adibidez–, ados gagoz proposamena egin dauen taldearen irakurketeagaz, hau da, kontrol publiko handiagoa egon beharko leukeala, eta partaidetzazko kontrola izan beharko leukeala.

Beraz, Alderdi Popularrak proposamen bat egin dau ekimen honegaz, Bizkaian Europako funtsen betearazpenaren kontrolari eta jarraipenari zehaztasuna emoteko. Eta, amaitzeko, gogoratu gura dot barriro be inkoherentea irudituko litzakigula jeltzaleek behintzat honen alde ez egitea, kontuan hartuta erresumako kongresuan hilebeteak daroazela holango erabagietan parte-hartzea eskatuz. Beraz, tira, gure aldetik, gure laguntza hor egongo da.

Muchas gracias.

La **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Escalante Mesón. El representante del grupo Socialistas Vascos, señor Trimiño Vegas, tiene usted la palabra.

El Sr. **TRIMIÑO VEGAS** jaunak: Muchas gracias, señora presidenta. Buenos días a todos/as.

Gaur barriro be eztabaidara ekarri da, eta ona da holan izatea, Europako funtsen gaia, kasu honetan, hain zuzen be, horreen betearazpenaren kontrola eta jarraipena. Horregaitik, gogoratu gura dogu funts horreek misino bikotxa daukiela: alde batetik, ekonomia suspertzen eta berraktibetan laguntzea, pandemiaren ondoriozko krisiak gure sare ekonomiko eta produktiboan izandako eraginaren ostean. Eta, bestetik, gure ekonomien eraldaketea bultzatzea, batez be gizarte lez aurre egin behar deutsegun trantsizino handiei aurre eginez, sektore publikotik gidatuz. Hau da, trantsizino soziosanitarioa, trantsizino digitala, trantsizino energetikoa eta trantsizinoa mobikortasun jasangarriaren esparruan be. Hau da, funts horreek epe laburrean jarduten dabe ekonomia suspertzeko, baina baita egiturazko eraldaketa-dinamikak bultzatzeko be.

Eta ezin dogu ahaztu hori, hau da, Europako funtsak, Europa mailako alkartasuneko eta lankidetzako jazoera historiko bat, baina baita arlo publikoak ekonomian esku hartzekoa be, errealidade bat dirala, European gobernu aurrerakoiek eta ezkertiarrek daukien lidergoari esker, besteak beste, eta zeregin nabarmenagaz Espainiako Gobernuarena, Pedro Sánchez sozialista buru dala. Azken baten, erantzun hau eta aurreko krisi ekonomikoan emon zana oso desbardinak dira, eta Europako gobernu aurrerakoi eta ezkertiarren ekintzari esker da, gure herrialdekoa lez, Espainiako lez.

Beraz, eztabaida behar dan moduan kokatzeko, gai batzuk komentatu gura doguz. Lehenengo eta behin, esan behar dogu Foru Gobernuari jagokola, kasu honetan eta. gure ustez, garatzen diran politika publiko guztietan, funts horreen betearazpenaren kudeaketa eraginkorra eta efikaza egitea kontuak emoteagaz eta kudeaketa horren gardentasunagaz buztartzeko gai izatea. Bigarrenik, Estatu mailan Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plan bat dagoen lez, Euskadi Next plana dago autonomia-erkidegoan. Plan hori Eusko Jaurlaritzak, hiru foru aldundiek eta hiru uriburuek (3 uriburuetako udalek) batera egin dabe. Hirugarrenik, estatu mailan funts horreek berariazko erregulazinoa daukie, 6/2020 Errege Lege Dekretua, baina 2021eko garagarrean 105/2021 Foru Dekretua onartu zan, Foru Aldundiaren ezaugarriakaz bat datorren gobernantza egiturea sortzeko, eta funts horreek kudeatzeko beharrianakaz bat etorrita.

Foru Dekretu horrek, laburbilduz, ezarten dau Europako funtsen arloko eskumena Ahaldun Nagusiaren Kabineteari jagokola; Koordinazino Batzorde bat eratzea ezarten dau; Ogasun Sailak arlo horretan dauen zeregina be ezarten edo arautzen dau;, eta Batzar Nagusien aurrean kontuak emoteko mekanismoak be ezarten dauz, eta gai hori apur bat aurrerago aitatu dogu. Eta, laugarrenik, uste dot funtsezkoa dala, eztabaida honi aurre egiteko, jakitun izatea edo kontuan hartzea finantzetan diran proiektuak, edo funts horreekaz finantzetako aurkezten diranak, ez dirala proiektu barriak, Europako funtsen ondorioz sortu edo asmatuak. Esan gura dot, kontua ez da funts horreek martxan ipini ziranetik hainbat proiektu asmatu dirala finantzaketa-aukera hori aprobetxetako, baizik eta, izatez, funts horreekaz Foru Gobernu honen agendean edo proiektu-zorroan egozan proiektuak finantzetan ahalegintzen gabiltza, bere ekintza-planean edo legegintzaldi-planean, eta proiektu horreek Ganbera honetako talde politiko batzuen gustukoak izan daitezke, gitxi gorabehera. Hori beste era bateko eztabaidea da, baina hori dala-ta, proiektu jakin batzuk funts horreen bidez finantzautu dagoz edo finantzautu egotea bilatzen da. Eta uste dogu garrantzitsua dala gai hori kontuan hartzea Europako funtsen eremuko kudeaketaz, betearazpenaz edo partaidetza-ereduaz berba egiteko orduan.

Hori esanda, egoki deritxagu aitatzeari, kasu honetan, azaldu dogunagaz bat etorrita, badagozala mekanismoak edo tresnak Batzar Nagusi honeetan proposamena egin dauen taldeak eskatzen dauen jarraipena eta kontrola egiteko. Alde batetik, proiektu horreek eta horreen kudeaketeak kamera honen kontrol arruntaren pean ipini daitezke, Foru Gobernuak

garatzen dauzan proiektu eta politika guztiak lez, Araudiaren eta Batzar Nagusietan horretarako ezarritako prozeduren arabera. Hau da, proiektu horren aurrekontu-betearazpenaren jarraipena eta kontrol politikoa egiteko mekanismoak egon badagoz. Era berean, jakina, sailek euren arloei jagokozen proiektuetan egindako aurrerapenen barri emon daikie. Eta, beste alde batetik, Bizkaiko Foru Aldundiak berak onartutako 105/2021 Foru Dekretuak berariazko mekanismo bat ezarten dau gai horretarako, eta Foru Aldundia behartzen dau Batzar Nagusien aurrean azalpenak emotera, funts horreekaz lotutako proiektuen egoerari, aurrerapenari edo kudeaketari buruz.

Horregaitik, eta amaitzeko, ez dogu mozinoa babestuko, Foru Aldundiaren barruan gobernantza-eredu egokia dagoala uste dogulako, eta kamara honek eta bertako talde politikoez kontrola eta jarraipena egiteko mekanismoak badagozalako. Horreetako batzuk, esan dodan moduan, mekanismo arruntak dira, hau da, Foru Aldundiak zabaldutako proiektu guztien jarraipena eta kontrola egiteko gauzatzen diranak, eta beste batzuk mekanismo espezifikoak dira, aitatutako 105/2021 Foru Dekretuak ezarritakoak, berbarako.

Muchas gracias.

La **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Trimiño Vegas. Señora Duque Santacoloma., portavoz del grupo Euskal Herria Bildu, tiene la palabra.

La Sra. **DUQUE SANTACOLOMA** andreak: Buen mediodía a todos/as.

Hoy hemos debatido la misma iniciativa que debatimos en el pleno de abril de 2022; una iniciativa del Partido Popular sobre el control y seguimiento de la ejecución de los Fondos Europeos. Ya sabemos que cuando hay dinero de por medio aparecen los buitres, o, dicho de otra manera, los buitres. Cuando no se cumplen los compromisos adquiridos, sin dar información sobre lo hecho a cambio del uso de los fondos públicos. El tema de los fondos europeos siempre ha dado pie a, por un lado, grandes expectativas, y, por otro, a no menos grandes quebraderos de cabeza. Y, finalmente, la necesidad de idoneidad en cuanto a la gestión de estos fondos, no hablamos de unas ayudas cualesquiera, los fondos Next Generation suponen las mayores cantidades jamás activadas, y eso hay que tenerlo en cuenta.

Ese es el objeto principal del tema de hoy, garantizar que la gestión de esos fondos sea la adecuada. En realidad, se pide el despliegue de un órgano, como dijimos en el debate de la moción del PP, en abril; entendemos que la estructura de gobernanza existente puede ser ese órgano y hay que intensificar esa funcionalidad. Sin duplicidades, no necesitamos crear más órganos, sino aprovechar los que ya hay. Nuestra propuesta, en aquella moción que debatimos en abril, fue darle funcionalidad a esa estructura. Y, ¿cuál es la funcionalidad? Pues, por un lado, la presencia de 12 miembros, tal y como se decía en la moción original, de forma paritaria, pero, aparte de eso, propusimos que también hubiera ahí agentes sociales y económicos.

Nuestra segunda propuesta fue, sobre todo, marcar un buen ritmo de trabajo, no sólo aludiendo a la existencia de esa comisión u órgano, sino marcando un ritmo de trabajo. Encuentros trimestrales, rendición de cuentas sobre la gestión, qué criterios de distribución ha habido, qué problemas, qué modificaciones al menos. Y proponíamos también, a modo de ritmo de trabajo, un informe anual, una memoria anual, y esta sería una especie de acta de esa comisión, en la que cada miembro también mencionaría su opinión particular.

Y en relación con el decreto foral de 2021 al que se ha hecho referencia en el día de hoy, nos gustaría subrayar que aquí se ha mencionado que ese decreto foral garantiza,

o permite, el seguimiento de los proyectos, y nos gustaría subrayar que lo que se hace es una mera enumeración de los proyectos, no lo presentamos en ninguna comisión, ni lo debatimos; únicamente, a todos los partidos políticos se nos detallan los proyectos que aparecen en esos informes.

Por último, aunque compartimos el objetivo general, compartimos el objetivo general de la iniciativa realizada por el Partido Popular, pero nuestras propuestas no fueron aceptadas en abril, y teniendo en cuenta que probablemente estamos repitiendo hoy el mismo debate que hicimos en abril, nos abstendremos. Muchas gracias.

La **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Duque Santacoloma. El representante del grupo Nacionalistas Vascos, señor Bagan Urtiaga, tiene usted la palabra.

El Sr. **BAGAN URTIAGA** jaunak: Señora presidenta, Diputado General, buen mediodía a todos y todas.

Desde el Grupo Mixto-Partido Popular se ha presentado una proposición no de norma, y se propone la creación de un órgano para controlar y hacer seguimiento de la manera en que se concretan los Fondos Europeos.

Aurretik eztabaidatu zan mozino baten antzeko proposamena da, eta gure proposamena, gure taldearen proposamena, bardina izango da, lortu gura dan kontrol eta jarraipen hori, daborduko egiten ari dalako. Zein da testuingurua? Next Generation Europako funtsak daukaguuz, 750.000 milioi eurokoak. Espainiari 150.000 milioi jagokoz, 80.000 milioi kreditutan, eta 72.000 milioi dirulaguntzatan. Hortik dator España Puede plana, eta hortik dator Euskadi Next Plana, zeinean Aldundi honek parte hartzen dauen. 72.000 milioi euro horreetatik, 60.000 milioi proiektu eraldatzaileetarako inbersinoak finantzatzeko dira, dirulaguntzen bidez edo banaketa bidez, berreskuratze eta erresilientzia mekanismoa baliata. Eta, logikoa danez, ezin da bestela izan, funts horreen kudeaketea eta funts horreek finantzautako proiektuen gauzatzea modu eraginkorrean, zorroztasunez eta gardentasunez egin behar da. Ados gagoz.

Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiak, kudeaketearen arduraduna dan aldetik, botere betearazlea da-ta, 105/2021 Foru Dekretua onartu dau, gobernantza-egiturea ezarri eta horniduten dauena, eta funts horreek hobeto kudeatu ahal izateko egiturazko neurriak, neurri modernizatzaileak eta administrazioa bizkortzeko neurriak onartzen dituana. Dekretu horren zer alderdi nabarmentzen doguz? Bizkaia Erakargune Bihurtzeko Zuzendaritza, Ahaldun Nagusiaren Kabinetearen menpe dagoana, da funts horien kudeaketan eskumenak dauzan zuzendaritza-organoa, eta hari jagoko finantzautako proiektuen exekuzioaren koordinazioa eta jarraipena egitea.

Bigarrenik, koordinazio-batzorde bat eratzen da, eta hari esleitzen jakoz sustapena emoteko, laguntzeko eta euskarri teknikoko lanak. Era berean, Finantza, Aurrekontu eta Ondare Zuzendaritza daukagu, Foru Ogasun Sailaren menpe dagoana, eta hari esleitzen jakoz fiskalizazinoak, kontu-hartzailetzako, kontroleko eta auditoretzako eginkizunak, beharrezkoak diranak.

Laugarrenik, giza baliabideei buruzko neurri batzuen kudeaketea be jasota dago, proiektu horreek kudeatzeko beharginak ipini beharko balira be. Eta, bosgarrenik, eta kontu-emote horri jagokonez, Aldundiak berak ezarten dau urtean behin gitxienez Batzar Nagusiei proiektu horreek gauzatzeko eta/edo programetako egin beharreko aurrerapenen edo egoerearen barri emon behar jakela. Hori, alde batetik.

Eta, beste alde batetik, Aldundiko Gobernu Kontseiluak, 2022ko maiatzaren 17an, kudeaketaren arriskuen prebentzinorako eta iruzurraren kontrako neurrien osotasunerako plan bat onartu eban, Europako funts guztien kudeaketean aplikauko dana. Beraz, gure ustez, funtsen kontrola eta jarraipena egin egiten da, eta horretarako baliabideak ipini dira.

Eta, era berean, proiektu horreek gauzatzeari buruzko behar besteko informazioa emoteko gardentasunagazko konpromisoa gogoratuko dot. Proiektu eraldatzaileak, izan be, halan dira gehiengoz babestu dan Gobernu honen ekintza politikorako plana osotzen daben proiektuak, trantsizinoetan txertatzen diranak: soziosanitarioa, mobikortasun jasangarria, digitala, energetikoa eta ingurumenekoak. Horreek dira-ta agindu honetan ekintza garatzeko erabilten diran bideak, eta diruz lagundu daitekezan ildoetan be egokitzen dira.

Beraz, kontrola eta jarraipena egin dira daborduko, eta baliabideak ipini dira; horregaitik, ez dogu proposamen hau babestuko.

Muchas gracias.

La **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Bagan Urriaga. Pasaremos al turno de réplicas. Para ello, tiene la palabra la representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, señora Martínez Fernández.

La Sra. **MARTÍNEZ FERNÁNDEZ** andreak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea.

Azken baten, egia esan, zuei bardin jatzue Europako funtsak edo dana dalakoak izatea. Gaztelaniazko esaera haretan lez, zeuek prestatu eta zuek jan. Eta horixe esaten deuskuzue hemen. Bagan jauna, imajinetan dozu esaten, “700.000 euro dagoz hemen, 150.000 ez dakit zertarako...”. Ea, parte-hartze politikoari lekua egin ahal izateaz gabilta berbetan, eta jakina, iruzurrik egon ez daiten plan bat behar da, hain zuzen be, aurtengo maiatzaren 17an onartu zana. Jakina, zuek batzorde bat sortu dozue, 21 kide daukazan batzorde bat, eta danok izan behar zarie zuzendari nagusiak, hau da, gai horretan ez dago funtzionario publikorik; izan behar da, muga hori da, gitxienez, batzordekide horreek zuzendari nagusiak izan behar dabela. Zuek sortu dozuen gobernantza-egitura horretako funtzionario bakarra idazkaria izan daiteke, izatekotan. Eta hori da zuek sortu dozuen Koordinazino Batzordea, koordinazino politikorako batzordea baino ez dana; bertan Aldundiko sailek parte hartzen dabe, eta diputadu bakotxak aukeratu dituan aukeratu dituan foru diputaduek edo zuzendari nagusiek. Eta horixe da dagoan guztia, eta esaten deuskuzue hori nahikoa eta sobera dala?

Guk uste dogu, gauzak ondo egin gura badira, eta oso denpora gitxi daroagu, baina dagoaneko alertak dagoz, kontuak ez dagozala behar baizen ondo, ba, aizu, talde horreei guztiei partaidetza emotea izan beharko litzateke gitxieneko abiapuntua. Hainbestekoa da zuen opakutasuna, ze, Batzar Nagusiotan galdetzen jatsue zer proiektu aurkeztu diran eta hori be ez deuskuzue esan gura, zeintzuk onartu diran baino ez. Hara, ez zarie ausartzen aurkeztu dozuezan proiektuak Batzar Nagusi honeetan adierazotera be. Izan be, uste dot gaitasuna eukiko dogula Batzar honeetan proiektu hori erabagiteko, hobe iruditu ahal jat edo lehenasunezkoagoa iruditu ahal jat hau bestea baino. Eta esaten deuskuzu “jakina, giza baliabideez horniduko da”, bai, uste dot zazpi persona izentau dirala daborduko, “eta dirulaguntzen lerroetan egokitzea bilatzen da”.

Nire ustez, ez badogu argi funts horreek oso garrantzitsuak izango dirala edo izan behar dabela gure herriaren egitura ekonomiko osorako, eta, jakina, baita Bizkairako be, zuek salsa-malsa baten sartuko dozue, horixe eginen zabilte, guk Jaurilaritzan daborduko

daukaguzan planetarako, eta, horregaitik, holango planak ikusten doguz, Euskadiko inbersino estrategikoak, hain zuzen be, Eusko Jaurlaritzaren eta hiru aldundien artean adostuta dagoana. Jakina, zuek Bizkaiko Foru Aldundiaren esku dagoanaren barruan zagoze, 200.000 euro eskualdeetako zaintza-zentroetarako, primeran iruditzen jaku. Baina, tira, beharbada gustauko litxakigu esatea 22 milioi euro baino gehiago bideratuko dozuezala, berbarako, bidesari ospetsuak, bidesarietako arkuak instaletako.

Aizu, zuen ustez, ezin da adostasun apur bat bilatu? Uste dozue lar eskatzea dala Batzar Nagusi honeek diseinuan partaidetzaren bat eukitea, zein proiektutan egon daitekez hobeto edo okerrago, edo zeri emon behar jako lehentasuna Bizkaitik? Pena emoten deust zuek hain deseroso egotea gai hori dala ta.

Horretaz ganera, jakinarazo beharko da benetan atera ete jaken Europar Batasunetik heltzen diran funts horreei atera ahal jaken etekin guztia; izan be, nire ustez, hemen, funtsezko zeozer badago, edo gure ustez funtsezkoa izan beharko leukeana, enpresa-proiektu barriak bultzatzea dala, enpleo barriak sortzen ahalegintzea, eta, horrenbestez, Bizkaiko ekonomia sustatzea.

Baina zuek, esan deusuet, hain oinarrizkoa eta hasierakoa dan horretan, danok parte hartu ahal izatean, ze proiektu aukeztu dozuezan be ezin guri adierazotea... Esan deusuedan lez, Batzar Nagusiotan onartu diranen barri baino ez dozue emoten. Eta gero esan deuskuzue, hain zuzen be, onartu dozuela, gitxienez urtean behin, Bizkaiari Arreta Emoteko Zuzendaritzak proiektuen programazioaren eta/edo betearazpenaren egoeraren barri emon beharko deusela Batzar Nagusiei, eta hori ez da bete. Eta esango deustazu, “aizu, ba, eskatu egin zeinke”, ezta?, eskatu ahal dot, zer eskatu daiket?, Ahaldun Nagusiak agerraldia egiteko eskatu ahal dot, jakina, presidentziako diputatua agertzeko eskatu ahal dot, baina hemen esaten da hori zuzentzen dabilena Bizkaia Erakargune Bihurtzeko zuzendari nagusia dala, eta zuek onartu dozuen hori be, gaur-gaurkoz, ez da bete Batzar Nagusi honeetan.

Begira, gai honetan, beste batzuetan lez, zuek harro-harrai agertu arren, uste dot ez daukazuela errazoirik, uste dot ez zabiltzela behar dan moduan kudeatzen, uste dot ez deusazuela behar besteko lekuri emoten parte-hartze politikoari eta hemen gagozan talde guztiok osotzen dogun pluraltasunari.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Martínez Fernández. El representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señor Escalante Mesón, tiene usted la palabra.

El Sr. **ESCALANTE MESÓN** jaunak: Muchas gracias, de nuevo.

Tira, badaezpadan argi geratu ez bada be, ez gatoz bat PPgaz gai askotan, baina kasualidadez, honetan, bai; izan be, Alderdi Popularrak sustatzen dauena, kasu honetan, Europako funtsen kontrol partaidetua, plurala da, eta, jakina, horretan ados gagoz, adierazo dogun eta lehendik be adierazo genduan moduan.

Nik honetaz jakin gura neuke, ez jat oso argi geratzen, zer daukien, holango prozesu baten kontra, Alderdi Jeltzaleak eta Alderdi Sozialistak. PPko bozeroaleak esan barri dauena da proaktiboa izateko eskatzen ari jakola Aldundi honi, eta gogoratu gura dot gauza bat: ezin dogula zuzenean eskatu, ganera oraintsu euki dogu, ezin dogu zuzenean zuzendari nagusi baten agerraldia eskatu. A zer partaidetza-eredu sortu dogun Europako funts horeek dirala-ta, a zer kontroletako era.

Proaktiboa izateko eskatzen deusazue Aldundi honi. Horrek esan gura dau, Aldundia harro agertzera datorrela hona, kontuak emoten dabezalako harro esatera; bere betebeharra da eta. Baina kontu-emote horretan aurrera egiteko eskaria baino ez deusezue egiten, prentsaren aurrean kontuak emon aurretik behintzat, urrutira joan barik, Bizkaiko Batzarren aurrean kontuak emon daiezan, hori baizen erraza da ta. Edo kontuak emotea, kasu zehatz honetan, ad hoc batzorde batean, Bizkairako eta Bizkaiaren etorkizunerako nahiko garrantzitsua dan zeozer kontroletako. Uste dogu asko daukazuela hobetzeko, eta, urrunago joan barik, gogorarazo gura deusuet agintaldia amaituko dabela euro bakar bat ipini barik herritarren partaidetza-prozesu baten esku. Horrek asko esaten dau Aldundiaren eredu horri buruz.

Eta, tira, amaitzen joatearren, jakin gura neuke Alderdi Popularrak proponiduten dauen eredu honek, aurretik be proponiduten izan dauenak, balio ez badeusue, zein dan zuek defendiduten dozuen aurrerapena partaidetza-eredu baten, hau da, Bizkaiko Batzarren barruan parte hartzea. Eta, tira, gure ustez, taldeek argi eta garbi ikusten dabena zera da, aurrerapen handiak dagozala Aldundi honek Batzar Nagusiokaz daukan partaidetza-ereduan. Tira, azken finean, uste dogu demokrazia gehiago eta teknokrazia gitxiago behar dirala. Beraz, horixe, eskerrik asko

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Escalante Mesón. El representante del grupo Socialistas Vascos, señor Trimiño Vegas, tiene usted la palabra.

El Sr. **TRIMIÑO VEGAS** jaunak: Gracias de nuevo, señora presidenta.

Nik, asko luzatu barik, lehen berbaldian esan dodazan idea batzuk indartu gura nebazan, beste barik. Lehenengo eta behin, proiektuei jagokenez, uste dot nahiko zentzunezkoa eta nahiko logikoa dala onartzea eta ulertzea azkenean Europako funtsak finantzetara aurkezten diran proiektuak Foru Gobernuaren ekintza-planaren edo legegintzaldi-planaren barruan dagozanak dirala, Gobernu legitimoak, Lurraldeko Foru Gobernuak, lehentasunezkatzat, bideragarritzat edo Lurraldearentzat interesgarritzat ezarri dituanak diralako. Halanda ze, uste dot, ildo horretan, proiektu horreek aukeratzeko eta erabagiteko modua guztiz errazoizkoa dala.

Jakina, Europako funtsen espirituagaz bat datozen proiektuak, zeozelan esateko, lehenengo agerraldian aitatu dodazan trantsizei aurre egiteko gaiagaz bat datozenak. Eta funts horreen jarraipenaren edo gure proiektuen betearazpenaren kontrolari jagokenez, barriri esan behar da existiduten dala, igaz 105/2021 Dekretua onartu zalako, eta aurretik azaldu dot, labor, zertan zetzan. Era berean, aukera dago jarraipen etenbakoa egiteko, beste proiektu batzuek egiten dan moduan, Batzar Nagusiek eurek talde politikoei emoten deusezean mekanismoen edo tresnen bitartez. Ildo horretan, agerraldiak eskatu diranean, itaunak eta galderak egin dira, eta eskatutako guztiari erantzun jako. Badakigu, era berean, gai horri buruzko dokumentazio idatzia bialdu dala.

Beraz, nire ustez, kontu emote hori, edo taldeek kontroletako daukin erraztasun hori, existiduten da daborduko, hor dago. Kamara honetako talde politikoei egin behar dabena, jakina, talde politikoen esku dagozan baliabide horreek optimizetea da, edo erabiltea. Izan be, guk, demokratiki oso osasungarria begitantzen jakulako ganera, Europako funtsakaz kudeatzen diran proiektuei jagokenez, talde politikoei animetan doguz galdera guztiak, agerraldi-eskaerak, interpretazioak edo dana dalakoak egitera, aukera hori dagoalako, Foru Aldundiak zabaltzen dituan proiektu guztiakaz jazoten dan moduan, eta proiektu horreen barri emoteko modua be arautzen daelako: 105/2021 Foru Dekretua, hain zuzen be. Orduan, aukera hori egon badago, eta talde politikoei egin behar dabena, edo egin behar doguna, modu optimoan erabiltea da, eta lehendik dagozan mekanismo horreek aprobetxetan jakitea.

Eta amaitzeko, ez nebalako askoz luzeago jardun gura, esan gura dot gaur Europako funtsei buruz berba egiten, eztabaidatzen, bagabiltza, ez dala Alderdi Popularrari esker, Alderdi Popularragaitik balitz ezingo geunkealako Europako funtsei buruz berba egin, Alderdi Popularrak Europako funtsak arautzen dituan Legearen kontra botau ebalako Diputatuen Kongresuan. Orduan, nik uste dot, gai jakin batzuk jorrazteko orduan, ba, gauza batzuk ezin doguzala ahaztu.

Muchas gracias.

La **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Trimiño Vegas. Señora Duque Santacoloma, portavoz del grupo Euskal Herria Bildu, desde el asiento, tiene la palabra.

La Sra. **DUQUE SANTACOLOMA** andreak: Por no repetirme, pero sí me gustaría subrayar un argumento que ha esgrimido el portavoz del Partido Socialista; que es normal y lógico que estos proyectos de los fondos europeos sean los mismos proyectos estratégicos que tenía el gobierno foral. Y a mí me gustaría utilizar el mismo título de la canción del grupo musical Hertzainak que ha utilizado nuestra portavoz: ezer ez da berdin!, ¡nada es igual!

Y yo creo que este ha sido el argumento que mis compañeros de grupo y yo hemos utilizado una y otra vez en esta legislatura. Quiero recordarles que los fondos europeos son una herramienta para hacer frente a una situación de crisis, y lo lógico, ante una crisis, o lo lógico a nuestro juicio, es dar inicio a profundas reflexiones para decidir entre todos y todas cuáles van a ser esas prioridades estratégicas, y no puede ser igual antes de la COVID que después de la COVID.

Y vuelvo a repetir lo que he dicho antes: sí, una vez al año, esta Diputación nos presenta ese informe, no es más que una lista, y ni siquiera tenemos la posibilidad de hacer preguntas al respecto; sí, hay mecanismos, y todos y todas podemos buscar en el SIGPE, en nuestro sistema interno, y ver cuántas iniciativas y preguntas se han incluido a través de los partidos políticos que estamos en la oposición, y llama la atención cuántas hay, lo que no es casual. Muchas gracias.

La **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Duque Santacoloma. Y para finalizar con el debate, el representante del grupo Nacionalistas Vascos, señor Bagan Urriaga, tiene usted la palabra.

El Sr. **BAGAN URTIAGA** jaunak: Bai, beharbada errazoi dozu, Martínez andrea, kopuruei buruz berba egin dodanean jeneralista samarra izan nazela, baina apur bat egin gura neban laburpen moduan, kopuru zehatz guztiak barriro ez errepiketeagaitik, baxotxa bere atalean, horretaz berba egin gendualako aurretik. Eta egia da, Europako funts horreen mende ipiniko doguzan proiektuak aginte-plana osotzen dabenak izango dira, uste dogulako onenak dirala, bizkaitarren bizi-kalidatea ondoen hobetu daitekieanak, eta Europako funtsakaz edo funts propioakaz egiten saiatuko gara, izan be, sozialki berretsiak izan dira.

Eta proposamen honen kontrako botoa emongo dogu, sortzea proposatzen dozuen organu horren zergaitia kontrola eta jarraipena egotea dalako, eta kontrol eta jarraipen hori, gure ustez, daborduko ondo egiten dalako, Bizkaiko Foru Aldundi honek, kudeaketa-arduraduna dan aldetik, aginte betearazlea dan aldetik, sortu dituan organuakaz. Eta alderdiek be bermatuta daukie funts horreen kontrola eta jarraipena, horretarako erabili diran tresnen bitartez,

Antolaketa Araudiaren bitartez. Izan be, adibidez, dokumentazinoa eskatu zenduenean, martian bialdu jatsuen, Etxanobe andreari itaun bat egitea proponidu zanean, Europako funtsei buruzko azalpenak emon ebazan, apirileko Kontroleko Osoko Bilkurean, oker ez banago. Eta garagarrileko kontroleko osoko bilkurean, Euskal Herria Bilduren ahozko galdera baten be, erantzun egin eban. Eta horretaz aparte, informazinoa emoteko berariazko kontu-emote mekanismo bat daukagu, aitatu dodan Foru Dekretu horren 8. artikuluan jasoten dana, eta, horren ondorioz, oker ez nanabil, garagarrilean Bizkaira Erakarteko Zuzendaritza horretatik Batzar Nagusietara bialdu zan Europako funtseen ganeko, finantzautako proiektuen ganeko dokumentazino guztia. Beraz, uste dot ez dala beharrezkoa organu hori sortzea. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Bagan Urtiaga. Y, finalizado el debate, someteremos a votación la proposición no de norma. Podemos votar.

El resultado es el siguiente: se han emitido un total de 49 votos, 8 han sido a favor, 33 en contra, 8 abstenciones. Por tanto, no se aprueba la proposición no de ley. Hemos llegado al final del orden del día, y, por tanto, se da por finalizada esta sesión de Juntas Generales. Muy buen día a todos/as.

Batzarra 14:00etan amaitu da.

Se levanta la sesión a las 14:00 horas.